

Ramos Azkarate Otegi

**IJITOEK KONTRATUBA
ETA ABAR**

Erri-literatura
Auspoa Liburutegia

Antzerkiak, ipuiak eta beste



ETOR

B0-439
9281

IJITOEN KONTRATUBA ETA ABAR

Auspoa Liburutegia

197



Ramos Azkarate Otegi

**IJITOEN KONTRATUBA
ETA ABAR**
(Antzerkiak, ipuiak eta beste)

Auspoa Liburutegiaren
Zuzendari - Antonio Zavala



EDITORIAL

ETOR

ARGITALETXEA

© EUSKO KULTUR ERAGINTZA ETOR S.A.

Juan de Bilbao 13. 20003 DONOSTIA

I.S.B.N.: 84-85527-47-X

D.L.: NA. 1.646-1988

Irar-lanak: GRAFICAS LIZARRA, S.L. - Lizarra

RAMOS AZKARATE OTEGI (1847-1904)

Ramos Azkarate Otegi Tolosa'n jaio zan, 1847 urteko Martxoaren 28'an, Erramu-igandez. Ortik bere izena: *Ramos*, eta ez *Ramon*, zenbaitek idatzi izan duanez.

Urrestil'ko alaba zan Isabel Barrena'rekin ezkondu zan.

Ogibidez, zapataria genduan. Berdura-plazan zuan bere lantokia, leenengo arkupean.

Karlista purrukatua izan zan. Bertso asko ta asko jarri zituan orduko politikari buruz, gauzak karlisten ikuspegitik ikusiz noski, eta geien-geienak Tolosa'ko *El Cántabro* aldizkarian argitaratuz.

Bestelako bertsoak ere baditu noski. Oietan famatuenak, *Galtzaundirenak* izango dira, gaur egunean ere Tolosa'ko Iñauterietan urtero kantatu oi diranak.

Itz lauzko lan batzuen egillea ere bada.

Izenorde asko erabiltzen zituan: *Gaiñtxurisketa*, *R. Arrantz-illun*, *J. Zabalbidekuak*, *Iruretan-goienak* eta abar. Baita ere bere izen-abizenak: *Ramos Azkarate-kuak*. Edo bestela: *R. A. eta O.*

Bi antzerki-lan ere moldatu zituan: *Ijitoen kontratuba eta ezkontza* (1885) eta *Beotibar'ko jatzarra-ren oroipena* (1886).

Auspoa'ren 7'garren alean, Ramos Azkarate'ren bertso-mordoska bat eskeiñi genion irakurleari. Aren bizitzaren berri ere ematen genduan, emen baiño zeatzago. Au, ango laburpen bat besterik ez da.

Gaurko ontan, aren itz-lauzko lanak bildu nai izan ditugu. Iru motakoak dira: leenengoa, or goien aitatutako bi antzerkiak; bigarrena, iru ipui; eta irugarrena, politikari buruzko zenbait artíkulu, *Él Cán-tabro*'n agertuak.

Ramos Azkarate Tolosa'n il zan, biotzetik, 1904 urteko Martxoaren 26'an, berrogei ta amazapi urte betetzeko bi egun falta zituala.

A. Z.

IJITOEN KONTRATUBA ETA EZKONTZA

Ramos Azkarate ta Otegi'k
euskeraz moldatua
bi egintzetan

ZENBAIT ARGIBIDE

Ramos Azkarate'ren *Ijitoen kontratuba eta ezkontza* izeneko antzerki onek bi argitaraldi izan zituan. Gaurko au irugarrengoa.

Leendabizikoa, Tolosa'n agertu zan, 1895 urtean, Mugertza'ren moldiztegian.

Bestea ere moldiztegi berean, «Tolosan: Franzisko Muguerzaren moldizteguian 1908-garren urtean».

Bigarren au oso aldatuta dago: hiperbaton dala-ko ori zuzendua, fonetismoak kenduak eta euskera gramatikaratua. Txukundua eta orraztua, alegia, lan ori egin zuanaren ustez. Esku ori, ordea, etzan egillearena izango, Ramos Azkarate 1904'ean il baitzan, leen ere esan degunez. Besteren lanentzako errespetorik eza ez degu, beraz, euskaldunak atzo goizekoa.

Orregatik leenengoari kopiatu diogu; 1895'eko orri, alegia.

Idazterakoan bear bezelako arretarik egilleak jarri etzualako-edo, bi eta iru modutara daude zenbait itz leenengo argitaraldi ortan. Adibidez: *derizkiyotzu* eta *deizkiyotzu*; *bera eta beera*; *Añttoñi*, *Anttoni* eta *Anttoñi*; *Benigño* eta *Benigno*; eta abar eta abar. Oiek danak, arkitu ditugun bezela utzi bearrak zirala iritzi diogu.

Ala ere, ez degu dan-dana leenengo argitaralditik kopiatu. Adieraziko degu zergatik.

Guk daukagun alea, Tolosa'ko Jose Larrañaga zarenaren eskutik jaso genduan. Bera, ain zuzen, euskal antzerki-antzezle iaioa izana zan *Círculo Carlista*'ko jaialdietan, au Kale Nagusian zegoan garaian. *Ijitoen kontratuba eta ezkontza* berau ere antzeztuko zuan. Guk bein daukagu gogoan Jose Larrañaga adiskidea iruditegian ikusia, baiña Pepe Artola'ren *Bixente* izeneko antzerkia antzezten, gerra ondoren, Jesusen Biotzaren Anaien ikastetxean. Ortarako benetan balio zuana zan.

Tamalez, eman zigun aleak asierako lau orri-aldeak falta ditu. Ale osoaren billa alegindu gera, bai Tolosa'n galdezka eta bai liburutegietan billa. Alperrik, ordea, gure egiñalak. Ala ere, nunbait ere ikusi zuan Jon Bilbao adiskideak, bere *Bibliografía*'n leenengo argitaraldia aitatzen baitu; ez, ordea, bigarrena.

Orregatik, bigarren argitaraldiari artu bear izan diogu asiera guztia: azaleko izenburua eta gaiñerako idatziak, Elosegi'ko On Jose jaunari egiten dion eskeintza, egintzalleen zerrenda eta *himno* edo *kant-ona*.

Bigarren argitaraldia oso-osorik daukagu, noren eskutik jaso genduan apuntatu ez eta orain ezin esan badegu ere.

* * *

Ijitoen kontratuba eta ezkontza antzerkia 1895 urtean argitaratu bazan ere, amar urte leenagokoa degu: 1885'ekoa. Ala adierazten genduan *Galtzaundi ta beste bertso asko* liburuaren itzaurrean, *Auspoa*'ren 7'garren zenbakian, Ramos Azkarate'ren bizitzaren berri ematerakoan. An esandakoak, geienak beintzat, orduko tolosar zaarren aotik jaso genituan. Artean banaka batzuk bai-baitzeunden Ramos Azkarate ezagutu zutenak. Orain, berriz, oiek ere izkutatatuak, ogei ta sei urte pasa baitira liburu ura agertu zanetik.

An esaten genduanez, antzerki au, «Plaza Zarrean zurezko agertoki bat altxa ta antxen aurkeztatu omen zan estrañako aldiz, Iñauteri egun batean».

Bearbada, orduko egunkariren batean emango da jaialdi orren berri.

Ondorengo batean, ijitoak kargu artu omen zioten Ramos Azkarate'ri Tolosa'ko Zumardi Aundian, beren aurka antzerkia idatzi zuala-ta.

Euskal-Erria aldizkariak onela dio bere XII'garren alean, 1885 urtean:

«...en Tolosa se ha dado a conocer otro autor dramático popular, el Sr. Ramos, cuyas comedias han gustado sobre manera a las personas que las han leído y visto.

Dicho señor es el autor de la jocosa comedia de costumbres Ijituen ezkontza, (un casamiento entre gitanos), que fue representada en Tolosa».

Andik amar urtera, 1895'an, berriz antzeztu zan antzerki au, ta bai inprentatu ta plazara salgai atera ere.

Tolosa'ko *El Cántabro* aldizkariak zeatz ematen du orren berri. Bere 177 zenbakian, 1895-IV-7'an, au esaten du:

«Para las próximas fiestas de Pascua de Resurrección, están ensayando varios Sres. socios del Círculo de la «Lealtad Guipuzcoana» un juguete cómico en vascuence, del inspirado bardo, paisano y amigo nuestro D. Ramos Azcárate, del cual tenemos muy buenas noticias, y que seguramente ha de complacer en alto grado a cuantos asistan a su representación, tanto por la letra como por la música, original del Sr. D. Miguel Lizargarate.

Oportunamente anunciaremos los detalles de la función.»

Antzerkiak dituan bertsoak zein doiñutan kanta bear diran, antxe esaten da aldi bakoitzean. Oso doiñu ezagunak dira, ain zuzen ere. Emen esaten denez, ordea, doiñu bereziren batzuk moldatu zituan Miguel Lizargarate dalako orrek. Baiña musika-paperak nun izango dira orain?

Onela zion *El Cántabro* aldizkariak, bere 179 zenbakian, 1895-IV-14'ean:

«Como ya indicamos en uno de los últimos números, esta noche habrá función de teatro en el Cír-

culo de la «Lealtad Guipuzcoana» de la Calle Mayor; estando a cargo de los individuos de dicha Sociedad la representación de las diversas piezas de que aquella se ha de componer.

Constará de un juguete cómico en un acto, en castellano, «Un minuto más tarde», y otro en dos actos y en vascuence, del Sr. Ramos Azcárate, que lleva por título «Ijitoen kontratuba eta ezkontza». Del desempeño de la primera pieza se han encargado los Sres. José Azurza, Sebastián Mocoroa, Ildefonso Calparsoro.

Y de la otra los Sres. Antonio Antia, Teodoro Amonarriz, Joaquín Arrese-Igor, Pedro Elósegui, Victorio Iribarren, Ignacio San Sebastián, Lorenzo Pujana, Joaquín Alargunsoro, José Muñoa, Valeriano Mocoroa, José Azurza, Santiago Caballero, Ramos Azcárate».

Emakumezko batzuek ere agertu bearrak dira berez antzerki ortan. Baiña, ikusten danez, oien pape-rak ere gizonetzkoak egin zituzten.

Eta bere 180 zenbakian, 1895-IV-18'an, onela esaten du *El Cántabro* orrek:

«Grande fue la animación que reinaba entre los concurrentes al salón del Círculo carlista en la noche del Domingo de Pascua.

El local era pequeño para contener al gentío inmenso que a él acudió, ávido de presenciar la función anunciada.

El programa que dimos a conocer a nuestros lectores en el número anterior obtuvo un esmerado de-

sempañ por cuantos tomaron parte en su ejecución. De nadie hemos de hacer especial mención; todos ellos trabajaron con esmero y acierto, arrancando justos y merecidos aplausos que la concurrencia les prodigó con entusiasmo.

Al final de la obra «Ijitoen kontratuba eta ezkontza», fue llamado al escenario su autor D. Ramos Azcárate, que fue calurosamente aplaudido.

El público, compuesto de familias de los Sres. socios, salió sumamente complacido del acto y pidiendo que con frecuencia se repitan este género de distracciones».

Eta aurreraxeago:

«En el Círculo carlista de esta villa y en la imprenta de D. Francisco Muguerza, Rondilla 8, se halla de venta, al precio de 25 céntimos de peseta cada ejemplar, el juguete cómico en vascuence y en dos actos, que recientemente ha compuesto el bardo eúskaro D. Ramos Azcárate.

Se remite por correo mandando a dicha imprenta dos sellos de a 15 céntimos».

Etzan orrenbesterekin dana bukatu. Ondotik soka luzea ekarri zuan antzerki-jaialdia izan zan ura. Onela dio *El Cántabro*'k, 192 zenbakian, 1895-IV-25'ean:

«Los jóvenes alistados como socios en el Círculo carlista de esta villa y que han tomado parte en las funciones de teatro que se han dado en aquel salón, fueron obsequiados el domingo último por la Junta Directiva de la expresada sociedad, con un banquete que tuvo lugar en la casa-hermita de Izascun.

A la una en punto tomaron asiento alrededor de la mesa los invitados y los individuos de dicha Junta que acudieron a la fiesta, siendo en número de 25 los comensales allí congregados.

Después de un responso rezado por los carlistas difuntos, dio comienzo la comida, que resultó tal que hubiera satisfecho al estómago más exigente y de gusto más delicado; y terminada que fue, se sirvió el café, con profusión de licores y puros habanos, regalo estos últimos de D. José Elósegui, para quien los comensales enviaron desde Izascun a su casa una tarjeta de cariñoso saludo.

Desde antes que diera comienzo el banquete y mientras duró éste, se dispararon multitud de cohetes que anunciaban la fiesta.

A los postres se cantaron varias canciones vascogadas, del bardo eúskaro D. Ramos Azcárate, allí presente.

Hubo también entusiastas brindis por D. Carlos y por la familia del Augusto desterrado. Y D. Valeriano Mocoroa recitó una composición en bascuence, compuesta para aquel acto, mereciendo nutridos aplausos de la concurrencia.

Igualmente obtuvo grandes aplausos el joven D. Victorio Iribarren, por unas canciones alusivas a la fiesta.

Por la tarde hubo un pugilato de bersolaris, que fueron también muy aplaudidos, llamando especialmente la atención de todos D. Ignacio San Sebastián y D. Lorenzo Pujana.

Dirigido por éste último, que ha solido formar parte de la comparsa de jóvenes bailarines de Villafranca, de donde es natural, se bailó el característico baile de las cintas, para lo cual se plantó previamente un árbol delante de la casa en que tuvo lugar el banquete, resultando muy bien hecha la danza, con gran satisfacción de los que en ella tomaban parte y de los que la presenciaban.

Se sacaron varias fotografías de distintos grupos por el aficionado D. Santiago Caballero.

La fiesta terminó con el tradicional aurreku, haciendo de primera mano el citado Sr. Pujana y la última mano D. Pedro Elósegui, viéndose todos precisados a retirarse antes de la hora proyectada, a causa del temporal que sobrevino a mediados de la tarde; y a eso de las siete entraron en la villa los expedicionarios, dirigiéndose al son de pitos y tambores al círculo de la calle Mayor, donde se remachó el clavo, como suele decirse.

No hubo desgracias que lamentar, ni la más ligera discusión, de ésas que con mucha frecuencia se arman entre la gente joven y de buen humor.

La fiesta deja muy grato recuerdo en cuantos a ella asistieron.»

Oietzek dira antzerki oni buruz garai artako al-dizkarietan arkitu ditugun berriak.

ELOSEGI-KO ON JOSE JAUNARI

Nere adiskide maite txit onez begiratua: Bedorrek egin dizkidan mesede aundiyai nolerebait erantzuteko, ezer gutxi baliyo duan lan txiki au donki-datzea pentsatu det, bada al banu geiago egingo nuke.

Ondo dakien bezela, jostatze-modu oek bear dan egokierarekin moldatzeko, gutxi-jakiña naiz; baña Euskerari diodan naitasun aundiagatik, pentsatu det Pazkua egunean, Jaungoikoak nai badu, lenbiziko aldiz agertu nai nukean jostaera au zuzentzea.

Beragatik denbora guzian atsegiñ izango nuke, baldin-ta gutxi balio duen, baña nekearekin egin dedan lana ontzat artuko baliket.

Onenbesterekin, Jauna, zorion-mota guziak opa diozkat, eta eska zaiogun Jaungoikoari gure España gaur errukarrira eta batez ere Euskal-errira egun obeak biraldu ditzala. Agur!!

Tolosan, Martxoaren 19-an 1895-garren urtean.

R. A. eta O.

EGINTZALLEAK

Printzipea
Laguntzalleak
Nobiyuaren aita
Nobiyarena
Biyen amak
Nobiyua
Nobiya
Eskribaua
Bere mutilla
Inpedimentua
Aitor

Egintzaren aurretik iduritegiyan denak batean kantatzeko

HIMNO EDO KANT-ONA

- 1/ Euskerarekin bizi
giñanak pakean,
erderakin nastuta
gaude gerratean;
au jarri baño lendik
Amaren gañean,
euskera altxatutzen
saiatu gaitean.

- 2/ Euskera eskoletan
zuten galerazi,
geroz Ama daukagu
ez ill.. ta... ez bizi;
erdera bear bada
euskera ez utzi,
baizik zer ederra dan
nun-nai erakutsi.

- 3/ Gaur arkituagatik
otsoen oiñpean,
erdal zori gaiztoko
masoien mendean,
gure *Mesias* ura
datorkigunean,
gure *Ama* jarriko
degu aldarean.
- 4/ Nola ez bada deitu:
«Bizi bedi euskera!»,
euskeraz ikasi ta
jaiuak bagera?
Guri sartu nai arren
derrigor erdera,
euskerarekin joango
gera gu lurpera.

LENDABIZIKO EGINTZA

I

Lendabiziko irudia

Beste guztiyak alde egiñ eta gelditzen dirade bi guraso-aldiyak eta nobiyua ta nobiya, «Erritik kanpora» izendatzen dan doñuban kantatubaz eta dantzatubaz.

Lendabiziko laukoa

Seiyak:

Jaungoikuak egun on,
egun on diyela...
Etxekoandre maitea,
lau kuarton mistela.

(Oraiñ dantzatu egin bear da doñu berean; eta segitzen duten beste bost laukuetan ere ori bera egin bear da.)

Bigarren laukoa

Orañ ez degu bañan...
da txit seguruba...
arratsaldez izango
degula diruba.

Irugarren laukoa

Ñapa orañ edan ta
eguardi aldian,
olloren bat sartuko
degu barrunbian.

Laugarren laukoa

Etxekuandre ederra,
nai al du erosi
asto txar lapurtuba
arbalda ta guzi?

Bostgarren laukoa

Al dezu, andretxua,
alanbratzekorik?
Ai! Ai! Ez baluteke
oraiñtxen begirik!

Seigarren laukua

Agur, jende leialak,
eta bigar arte,
ezer palta al duten
begira bezate.

(Nobiyua eta nobiyak iduritegitikan alde egiten dute, eta gelditzen dira bi guraso-aldiyak.)

Patxi.— Adi zazu, Kañi: badakizu... nere alaba zure semearekin txit ondo etorriko lirakela biyak?

Kañi.— Nola eta zertan etorri litezke nere semea eta zure alaba txit ondo alkarrekin?

Patxi.— A, zer bi, bata zu ta... bestea ni! Amaren aizpa izeba bezela, etorri litezke biyak, axeriya bañan ere bizkorraguak diralako.

Kañi.— Zertan derizkiyotzu dirala bizkorraguak?

Patxi.— Gure arraza guztiyak... jatorritikan dituguben... birtutez.

Kañi.— Candelas'en ofiziyuai... esaten al dizkatzu jatorriko birtuteak?

Patxi.— Bai, gizona; ez bagiñake lan oietan geraden bezelakuak... amaika barau... egin bearko ginduzke.

Kañi.— Eta... zure alabak ofiziyo oiek bakarrik al dakizki?

Patxi.— Ez, ez; ez dakizki oiek bakarrik. Daki gañera, aita bezela, gizonak illtzen. Daki olluak garrañan trabatzen, eta badaki... txerriyai atzetik makkilla sartu, ta guzizko moduz...

Kañi.— Eta... gero?

Patxi.— Gero? Gero... berez ill balitz bezela, baimena jabeari eskatubaz, artu bizkarrian, ta... ekarriyaz karobira... txerriyak dituben mokadu gozuak, dakizuben bezela,... etzaizkigu gaizki etortzen fami-

liyarentzat. Eta ori Burgos'era eramateko batere arraixku gabe.

Kañi.— Ez al daki beste arterik?

Patxi.— Bai; badakizki geiago ere. Daki astoai bizarrak moztutzen, asto zarra gaztiengatik trukatzzen, begiyen bistan dagoana ukatzen, eta baratzetako... —badakizu— familiyara ekartzen, alanbratzen, xestuak egiten, ta... besteren atorrek sasiyetatikan... legortu bañon lenago busti-bustiyak jantzitzen.

Kañi.— Nere semearentzat lagun oberik ezin leiteke arkitu munduban, danborra joaz ibillita ere; zergatikan berak ere birtute oiek guziyak baditu. Nai dezu ezkonduazi ditzagun biyak, gure emaztiak eta bi gaztiak konforme baldin badaude?

Patxi.— Lendabizi, Makariak itz egin dezala bere iritziya. Tira, nere emazte Makariatxo: zer deizkiyotzu, itz egiñ dituguben kontu oiengatik?

Makar.— Nik txit ontzat daduzkat tratatu dituzuten kontu pollit guziyak. Nere alabarentzat senar oberik eta Kañiren semearentzat andre egokiyagorik... ezetz billatu ijito guztiyen artean? Orain bere iritziya esan dezala Pantxikak.

Pantx.— Nere alaba dalarik *birtutez* aberatsena, zure semea ere ez da... desegokiya berarentzat. Da esatia, mutillak añako doaiak baditu beñepeñ, ta... zuek bexelaxen konforme arkitutzen naiz.

Patxi.— Nere alaba imajiña bat bezelakua dalako, benturaz egon leiteke beste batekiñ korapillatuba; eta gero ez dezaguben okerrikan izan, ohea de-

rizkiyot onera ekarriazitzia, eta galdetu iñorekiñ al duben ezer. (*Ojuka.*) Añttoñi!... Añttoñi!...

II

Bigarren irudiya

Lenguak eta Añttoñi.

Añttoñi.— Zer biar dek, aita?

Patxi.— (*Aparte alabari.*) Orra bada. Ez baldin badezu iñorekiñ ezkonduzteko tratamenturik, pensatu degu Kañiren semearekiñ zu ezkonduazitzia gaur bertan. Zer derizkiyotzu?

Añttoñi.— Askorekiñ izaten dizkiyat nik nere kontu txikiyak, bañan... nik geiena nai diyotana Burgosen dalako... Gizarajua! Nere Sandalio biyotzekua! Jesus! Jesus! Etzuben bada elizan lapurretik egiñ... zergatikan beñere sartu etzan. Bi gizon ill eta lau asto lapurtu zitubelako, arkitutzen da katez lotuta. Nola besterik ez dubenak... alegiña egiten duben... eta nik nola ezin etsi detan gizonik gabe... Kañiren semea mutill eder-ederra ez dek, bañon ik eta amak eta bestiak tratatu dezutelako ala... egun batzubetako artuko diat, gure ontasunak kalterik izan dezaten.

Kañi.— Alaba konforme al dago,

Patxi.— Bai, bai. Orañ ik semeari deitu akiyok.

Kañi.— Benigño, Benigño, ator ia, ator ia.

(*Badator semea.*)

III

Irugarren irudiya

Lenguak eta Benigno.

Kaṇi.— Adi zak, seme: al dakik... zertara deitu diratan?

Benigno.— Bedorrek esango du.

Kaṇi.— Orra bada. Nik eta ire ama Makariak, Patxi Gaizto eta bere emazte Pantxikak, pentsatu eta tratatu diyagu, oien alaba Añttonñirekin i gaur bertan korapillatuazitzia. Orañ esan zak ire iritziya. (Ai! Aztu egiñ zaidak!)

Lendabizi nai giñikek jakiñ... bai ote dekan bes-
teren batekiñ itza emanik, edo... itz batian esateko:
bai al dek andrerik?

Benigno.— Elizan artutako andrerik ez det,
baño... beok orrela tratatu duten ezkeru,... lengo an-
driak, lengo... beoidi ikasi niyoten eta... Eta zenbat
eta lenago eta naiago.

Kaṇi.— Bueno, ongi zia gok.

Patxi.— Kaṇi, zure semea eta nere alaba konfor-
me dauden ezkeru beren gurutzia artutzeko, guazen
guztiyok benta batera; nik konbidatzen zaituztet txiki
bat ñapaz edo muttur okerrez.

Kaṇi.— Patxi, edan ta pagatu biar ez deguben ez-
keru, txopiñ banaz nik konbidatzen zaituztet.

(Eta saltoka badijoaz seiyak alkarri elduta.)

IV

Laugarren irudiya

Brixko bakarrik.

(Etera bear du segituban, esanaz:)

Brixko.— Jaungoikuarengatik, ez bezaiote kontatu iñortxori esatera nijuakiyoten kontu au. Aditu det nola emen jardun diran ezkontza bat egiten Patxi Gaizto eta bere emaztia, Kañi ta bere andria, beren seme Benigñorekiñ Patxiren alaba Añttoñi gaur bertan korapillatzeko asmoetan; bañan mirabe ori ezurretaraño nerekiñ bat egiña dago; berarengatik bada etorri bear dute txit oker aundiyak martindemoniyo ori gaur zelebratutzen abiyatzen badira.

Teruel-ko amantiak bañan ere askozaz amantia-guak gera; elkar gabeko onik ez degu eta elkarrekin ere ez; alaz guztiyaz ederrak eman izandu dizkiyot, askotan edo geienetan batere kulparik gabe. Berak ere arriyakin zuluak egin izandu dizkit, gutxienez bai dozena bat bider.

O, amoriyo paregabia!

O, maitetasun zorrotza!

Añtonik neri nola ukatu

agindutako biyotza?

Begiratu besterik ez dago, kartzelan egondu nintzarian Tolosan... bi gizon ill ta lau asto lapurtu nitubedian. Añtonik etzuben egunik paltatzen ni bisitatu gabe, eta gañera etzan etortzen utsikan, baizik

jana ta edariarekin, zigarro eta bear nituen gauza guziekin, bañan ez dendetan erosita; berak jakingo du nola ekartzen zizkidan.

Eraman ninduten bada sei urterako Burgos-era; ara ere biraltzen zizkidan diruba eta gañera gañera-kuak, Tolosara etorri bitarteko denbora guztiyan. Pentsatu bezate, kristauak, arrazoi detan edo ez ke-jatutzeko. Arraio polatu, ixtillu gorriya ikusi bear du bateonbateg. Agur!

(Ezkutatzen da.)

V

Bostgarren irudiya

Añttoñi bakarrik.

Añttoñi.— Ikusi dute nola jardun dan emen Brixko predikatutzen bere sentimentuak, esanaz ni Benigno-ekin katibutzeko asmoan naguala, San Paulo Apostolua balitzake bezela? Gizon illtzalle lapur txar orrek izandu du baloria kontatutzeko nik nola lagundutzen niyon Tolosan eta Burgosen preso iduki zuten denbora guztian; egiya da, bai, nik alegiñ guztiya egiten niyola, eta... nola ez? Ez bageniyoke guk batak besteari lagunduko orrelako estuasunetan, zer litzake guzaz? Gu *juduak* bezelakuak gera: iñun erri-rik gobernatzan ez degularikan, ez degu etxerik, ain gutxi dirurik, ez baratza, ez soro, ez eta ere mendirik... baña besteren gauza guzietan badegu partetxua.

Konsideratu bezate orain, baldin guk *juduak* aibat diru bagendu, nola ez gendukean menderatuko España guztiya; eta ori, iñork ikusi nai ez gaituelarik, masoiak baizik.

Kontu oiei utzi ta orain nua Brixkok esan dituben itzai erantzutera.

Teruel-ko amantiak baño amantiago gerala esan du; galtzak soñian baditu beintzat, neretzat edozein da amantia, konbidatzen dakiyena bada; domingillo bat ere gizona dala iruritzen zait eta... Pensatu besterik ez dago noiz edo nun agindu nion Brixkori nere biyotza. Ikusten nago daguaneko, nik eta nere nobiyo Benigñok martindemoniyua zelebratu bañan lenago... kapaz dala lapur txar ori inpedimentu edo eragozpenen bat jartzeko neri; baña nik egingo det konbeni zaidana: ikusten badet balantza Brixkoren alde,... onekin ezkonduko naiz; eta ikusten badet Benigñon fabore,... jakiña dago nik ze egingo dedan: eguzki beroenaren alde. Edozein modutara dala, nik ezkondu egin bear det beintzat.

Muttur oker pixkatxo bat edatera nua —oker esaten det—, txiki bat edo beste. Adios!

VI

Seigarren irudiya

(Orain agertzen dira Eskribaua eta bere Mutilla.)

Eskrib.— Nola naizen ni ijituen eskribauba, bizi naizena ollokiyan, tellaturik ez duben txabola edo

bordatxo batian, udaran otzak illtzen eta neguban izerditan, oraintxe nagan bezela, ez dakit bart arratsian egin nuen amets edo dan Jaungoikuak bialdu diran ispirazio bat —ixil-mandatua deitzen zaiona euskeraz—; dana dala, beñepein, burutik iñolako moduz eziñ kendu zait, eta seguru nago, etorri biar dutela guregana kontratu bat egitera. Esatera nua zein izango diran; asmatzen badet, nere zori ona; eta utsegiten badet,... ni zori gaiztokoa. Dira bada datozenak bidean, Patxi Gaixto deitzen diyotena eta bere emazte Makaria, Txanpon-txurrut izen-goitiya duena; Kañi Etxekalterekin bere andre Pantxika Iñaxi, kontratu bat eragiñ azitzera, Benigño nobiyua eta Añttoñi nobiya beren konpañiyan dituztela.

Zer deizkiyozu, mutill Joxe Mari?

Mutilla. —Nik? Nik,... bedorrek esaten dubenari ez baniyoke emango fedia... nola bizituko giñake, bizi geran moduan? Bedorri ez profeta, ez aztiya, ez dalarikan,... kobratutzeko beñepein bere lanak, infernuko doaiak baditu. Eta bedorren ametsa, ixil-mandatua edo... dana dala, egiya balitzake bezela moldatu du beintzat. Eta neretzat ere, esan dituben ijito ordi txar aiek, denbora gutxi barru emen dira. Eta... sumatu besterik ez dago, zer kontratu eragiñ aziko diguten! Beragatik bada... —bedorri ez dago zer erakutsirik—, askozaz obeagoa du pentsatutzia dirurik ekarriko duten. Eta gertatzen bada diruarekin etorritzia,... arantzelari begiratu gabe,... an bazan, an zala.

Eskrib.— Nik uste baño mutill tontogua zera! Ez dakizu ijituak izaten dituztela astuak? Eta astorik ez balitzake... bizi geran moduan biziko ez giñakela? Eta

bestetik, berriz, uste dezu txarrak diradela lau ankeko astuak? Nola gure artekuak diru asko izaten degun,... etxeari guardiya egiteko onak izan oi dira.

Gertatu dedilla, naiz gabaz, naiz egunez, lapurrak etorritzia nere kutxaren billa... Zer egiten dubela uste dezu astuak —astua nor bada—, gosiak iduki ezker? Norbait sentitzen dubenian, janakin datorkiyolako ustian, abiatzen da arrantzaz, modu onetan: *Aaa... Aaaa... Aaaaa...* Eta lapurrak orduan ernegatzen gelditzen dira, ez arako eta ez onerako. Eta gu... danik eta mozkorrik aundiyena arrapatuta ere,... oiean lo zorroan egonagatik, asto tontoen *himno de Riego*'k esnatuko ginduzke.

Eta lapurrak itzuli biralitzeko, aski genduke tintero tiraka abiyatzia.

Mutilla.— Zenbat dakiyen, nagusi jauna, zenbat! Bedorri dalarik ijitotakua, zeñ izan leitekean bedorri beziñ gizon argirotarra!

Eskrib.— Zer esan dezu? Edo nun ikasi dezu euskerazko itz eder ori? Eta... bai al dakizu zer esan nai duben?

Mutilla.— Zer esan detan? Nun ikasi nuben? Euskal-Erriyan jαιο, Euskal-Erriyan azi, gañera emen bizi... Zer esan detan? Nun ikasi nuben? Zer esan nai duben argirotarrak? Ondo tontolapikotzat jotzen nau!

Nagusi jauna, ikasi nuben bada... Larramendi'ren itz-tegiyan edo Dizionariyuan. Eta esan nai du erderaz: *ilustre*.

Eskrib.— Zuk geiago ere jakingo dezu. Nola esaten da euskeraz *ilustrísimo*?

Mutilla.— Txit argirotarra, jauna.

Eskrib.— Nik uste bañan mutill bizkorragua zeukazkit!

Mutilla.— Zer egingo degu bada! Ziudade edo erriyari portalera begiratutzen zaio, nolakua dan.

Eskrib.— Bai, bai; dakizuben ezker euskeraz eta gaztelaniyaz, ematen dizut bertatik eskubidea, edozein eskritura, nai dan kontratu, zedorrek derizkiyotzuben moduban, batere neri itzikan galdetu gabe egiteko. Bañan... irakurritzeko beti neri eman biar nazkitzu.

Mutilla.— Ondo da, jauna. Nagusi jauna, orantxen datoz Patxi Gaizto eta bere emazte Makaria, atso zar ñapa-zalia, Kañi Etxekalte eta bere andre Pantxika Txistu. Beste bi ere badatoz. Zein diradela uste du? Benigno eltze-konpontzallia eta bere nobiya... Izena ezin gogoratu zait (*burubari atzegiñaz*) nolaaaa... Añttoñi, txerri-arrapatzallia.

(Exeritzen da nagusiyaren ondoan. Seiak sartutzen dira eta esaten dute:)

VII

Zazpigarren irudiya

Eskribauba, mutilla eta sei ijituak.

Seiak.— Jaungoikuak diyola egun on, eskribau jauna.

Eskrib.— Ondo etorriyak izan zaitezteela.

Mutilla.— Konpañiyak ez al du baliyo?

Patxi.— Baliyo ukena baitzake,... nagusiyaren mendean ez itzake egongo; gu ez gaituk iñoren mende egoten, kartzelan gaudenian ez bada. I... gure konpañiyan sartutzeko modukua aizela uste al dek? Artuko uke gure patxara!

Mutilla.— Polliki-polliki itzegin gero... neri, zergatikan zuek uste dezuten bañan eskubide aundiya guak daukazkit. Kontu egin dezazuteke neregana beartu bear dezutela, sei minutu bañan lenago.

Makaria.— Jaungoikua beste testigurik ez balegoke,... ire ezurrak eta mamiyak toki onian egongo ituzkek!

Mutilla.— Zer? Aitzenik ika itzegiten, zuek dakartzuten lana moldatu bear dubenari? Zu esatia ere ez al det merezi?

Añttoñi.— Ik zer demontre dakik, zertara etorri geran onera? Profetaren bat aizela uste al dek?

Mutilla.— Nik ala uste. Profeta naizen edo ez, laxter ikusiko nazute; eta jakin dezazuten bertatik, Je-

remias'en ixtar-lengusuba naiz. Nai dezute apustu, zertara zatozten asmatu baietz?

Kañi.— Ezetz. Lau asto baten kontra jarriko dizkiat.

Mutilla.— Egiñak daude; bañan juramentuban azpiyan aitortutzia.

Pantx.— Juramentura ezkerero,... aixa irabaziya zeukagu. Amaika bider juezaren aurrian egiñ diyat juramentuba, senarra kartzelatikan libratzeagatik; eta zer milagro dek, gu bezelakuak gurutzeari muñ egi-tea? Sagasta, Moret eta beste askok egiñ izandu dizkitek juramentubak jateagatik, leialak izateko beren erregearentzat, eta gaubetik goizera desegiñ eta ukatu. Gañera, onra bat balitzake bezela, ikusten dizkiyagu eguzki beroenaren alde. Ez dituk senti edo ikusten intrigo banaka batzubek, Don Karlosi leialtadia juramentatutakuak, gaur gerrarik aundiyena egiten berari? Eta oiek katolikorik fiñenak diralarikan,... beraz esaten dutenez.

Mutilla.— Beaz, zuek juramentuba egingo zenduteke asto batengatik bakarrik?

Benigno.— Egingo ez giñikek bada? Eta pozikan. Gu bataiatu bakarrik egiten gaituk, eta... bai al dakik zergatik? Ama pontekuak ondorenian... orrenbestekiñ aditzen dek. Gañerakuan guk ez diyagu, ez Jainkorik —bear danian ez bada—, ez nagusirik, ez kontribuziyorik, ez txartelik, ez medikurik, ez-eta beste mundu ontako gauza zuzenik; txarrak baizik.

Mutilla.— Modu orretan ez dago apusturik, eta egin zadazute mesede beste moduz itz egitia, zerga-

tik zuek uste dezuten baño gizon aundiagua naizen. Eskribau jaunari galdetu dezaiozuteke zer eskubidiak dauzkan emanik bere mutillari. Nik badakit zuek zertara etorri zeraten, eta alperrik denbora galdu gabe,... Patxi, abiya zaitetz al dezun modurik onenarekin nere nagusiyari galdetzen, zarrena zeraden partetik.

Patxi.— Eskribau jauna, egiya al da eskubide aundiyak eman dizkiola bere mutillari?

Eskrib.— Bai, Patxi, bai. Badakizu zergatik? Ni baño milla bider jakintsuagua dalako, eta ez daukazute erremedio santurik, ondo-ondo itz egin txurikatuz eta...

Makaria.— Ondo itz egiten obetoago dakigu, jauna, besteren gauza errespetatzen baño.

Kañoi.— Adi beza, mutill: bai al daki zer nai gendukian?

Mutilla.— Zuk esango dezu.

Kañoi.— Orra bada: nik eta nere emazte Pantxi-kak, Patxi Gaixto eta bere andre Makariak, pentsatu eta tratatu degu, gure seme Benigno oien alaba Añttoñirekiñ gaur bertan ezkondu azitzia; baña ez katolikuak bezela, baizik Madrillko ijito asko ezkontzen diraden moduan. Eta nai genduke, gero okerrik izan ez dezagun,... kontratu bat egitia, gero esango diozkagun kondizioetan.

Mutilla.— Ondo da. Euskeraz edo gaztelaniaz nai dezute egitia kontratua?

Seiak.— Biyetan, biyetan, korapillo askorekin.

Mutilla.— Kondiziuak orregatik euskeraz naiko dituzute noski?

Seiak.— Bai, jauna, bai.

Mutilla.— Zer ederki itz egiten dirazuten oraiñ!

Seiak.— Guk guzitara dakigu, ala beartzen geradenian. Beon lana pagatutzeko denboran... izango dira kontuak...

Mutilla.— Zer kontu?

Patxi.— Ezer ez, jauna. Zerbait esan biar nuen ta... esan. Baña ikusiko du.

Mutilla.— Zer ikusi bear det nik?

Patxi.— Ez nuben ori esan nai. Baldin... badu,... jango dubela.

Mutilla.— Bai; bestiak ere, ez dutenian, ez dute jaten. Guazen aurrera. Zu, Kañi: bai al dezute txartelik?

Kañi.— Ze txartel: komuniyokua edo milla pezetakua? Ori galdetutzia ere geiago egiten du.

Mutilla.— Ez al dakizute gaur, nai ta nai ez, biar dala zori gaiztoko txartela,... zedula esaten diotena, eskritura bat egingo bada?

Pantx.— Ez al daki bedorrek, Gipuzkoako fue-roak ez duela ametitzen Erdal-Erriko txartelik?

Mutilla.— Gaur Gipuzkoa gobernatuko balitzake bere fueroaz konforme, etziñateke ogei ta lau orduan egongo, orain zaudeten moduan.

Anttoñi.— Emen bizitzen ziran bada... gure kar-rerakuak, Isabel bigarrenaren denboran ere.

Mutilla.— Zer uste dezute: Isabelaren denboran emen genduzkagun fueroak zirala fuero osoak?

Benigno.— Beñepein guretarrak, orain bezin libre ez baziran ere,... libre asko ibiltzen ziran, nun da nere gogua, an da nere zankua.

Mutilla.— Zer ziñatekela deizkiyozute, baldin aparatuko ez baziñuzteke Konstituziyo zori gaiztoko onek?

Makaria.— Bestiak bezela españolak geralako aparatzen gaituzte. Ez litzake bada besterik falta, gu apartatutzia pertsonen artetik, animaliyak bagiñake bezela! Zeñi diyo ardura guk lapurreta... eta beste gaitz batzuben egiñagatik? Ez degu pagatzen, arrapatzen gaituztenian, gañerako guztiyen moduban? Bada guztiyok Adan eta Ebaren semeak gera. Gañera, larru gorriyan jaiuak.

Mutilla.— Bai; aitzena esan dizkidatzuben kontu oiek egiyak dira. Bañan... zergatikan ez dituzte pagatzen kontribuziyo eta gañerako kargak, bestiak pagatuzten dituguben bezela?

Patxi.— Zergatikan gu euskaldunak geran. Eta euskalduna euskalduna danak, ez luke pagatu bear, ez sisarik, ez kontribuziyorik, ez txartelik, ez paper sellaturik, ez-eta eman ere soldadurik, fueroaz konforme ez bada.

(Azaldutzen da eskribauba, aserre balegoke bezela.)

VIII

Zortzigarren irudiya

Sei ijituak eta eskribauba.

Eskrib.— Zeñek ditubela kulpak uste dezute karga oiek guziyak emen izatea?

Patxi.— Liberalkeriyak.

(Orain mutillak alde egiten du ixill-ixillik.)

Eskrib.— Zergatik bada gauza batzuketako nai dituzute erdal legiak eta, konbeni zaizkitzutenian, euskaldunak?

Kañoi.— Zergatikan gu bezela bizituzteko, gaurkuak obeaguak diran. Artutzia libre eta... eman bearririk ez. Gañera, kastigatuko baginduzteke, merezi deguben moduban, zeñ bizi? Gaitz egiten arrapatuta ere, jabia gu bañan kaltegarriyago gelditutzen da.

Eskrib.— Da esatia, zuek edozer gauza.

Makaria.— Dudarik ez dago. Liberalkeriyak ere argatikan deitzen du: «*-Viva la libertad!*». Bañan... nor dago libre? Artutzen ari dana. Pagatutzen ari dana, berriz, atzo bañan gaur presoago dago.

Eskrib.— Maleziya pranko badaukazkitzute gaurko eguneko ijituak.

Anttoñi.— Bearrian arkitzen gera. Gu baño ijito gaiztoaguak badaude ugari Madrillen, urkatutzia me-

rezi dutelarikan, España guziya larrutzen ari diradenak. Berak zorra diyenai pagatu ez; eta artzekorik ez diyotenai, armen indarrez, derrigorrian, kentzen dakitenak. Gure txartela gora-bera, eziñ al lezake egiñ gure kontratuba bedorren mutillak? Bai edo ez? Azkar erantzun bezait, zergatikan ezkontutzeko zale-turik nago, bedorrek ondo dakiyan bezela.

Eskrib.— Zer? Txartelen okerra besterik ez al dazure? Nik badauzkat gobiernubaren ixillik egiñak Baionako moldiztegi batian, eta artu nazkitzute ba-koitzak bana. Paltsuak dira, bañan... goiko ijituai pagatu edo nik kontratubarekin batian kobratu, ez det uste diferentzi aundirik dagoala, zuek konforme bazerate.

(Seiak bullaka asitzen dira.)

Seiak.— Biba gure eskribau jauna! Biba! Konforme gera, konforme.

Anttoni.— *(Beste ijituai.)* Goikuai ez pagatu eta onek ezin kobratu batere diferentzirik ez dago.

Eskrib.— Abek ijito bullosuak! Gortuta utzi nazute. Mutillari deitutzera nijua, zuek desiatzen dezuten kontratuba egiñ dezan aguro.

Anttoñi.— *(Jendeari begira.)* Uste ez duben txakurrak zaunka egiñ bear diyo gure eskribau jaunari!! Ori sinisturik dago, apainduta ikusten gaitubedian, guk diruba besterik ez degubela. Bañan

zentimorik ez degu. Eta guri zer? Nola ezkondu birtartean kontubaz galdetuko ez diyogun, diru-zalia bada ere... gelditu bearra da aboa bete ortzekiñ. Eta ori, baldin baditu.

(Zalapartan agertzen da.)

Eskrib.— Nun demontre da nere mutilla? Alde guztiyetera begiratu ta iñolako moduz eziñ billatu det. Au da, au, trantzia, amasei duro irabazi besterik ez da!... *(Kontrato-zaliak abiyatzen dira algaraz.)* Ni bafian lasaiago zaudete!

Seiak.— Guk ala uste. *(Farrez.)*

Eskrib.— Zeñi egiten diyozute farra?

Seiak.— Bedorren ametsari.

Eskrib.— Lo naguala uste al dezute, ametsetan ari naizela pentsatutzeko?

Seiak.— Alatsu! Alatsu!

(Agertzen da mutilla.)

IX

Bederatzigarren irudiya

Lenguak eta mutilla.

(Mutilla alderuak egiñaz eteratzen da, eta seiak asitzen dira farrez eta dute esaten:)

Seiak.— Jaungoikuak berri on digubela! Gu mozkorrak eta au mozkor aundiyaguarekiñ zatorrek; nolako pagatzalleak ala eskribatzalleak.

Eskrib.— Nun ziñan bada?

Mutilla.— Olarraingo bentan, jauna. Kuartillu bat Pillipa Añtto ñi eterazi diyot etxeoandriari, txuriya ta gorriya nastuba, eta nola ez nuben dirurik pagatutzeko, atsuak beste aldera begiratu bitartian an egondu naiz axeriya bezela begiyetan makarrik gabe, eta oraiñ emen nago.

Patxi.— Guk ez-ezikan, bedorren mutillak ere... barrengo arra ondo illa ekarri bear du! Kuartillu bat ñapa! Aitaren, Espiritu Santubaren izenian!

Eskrib.— Noizko dezu Semia?

Patxi.— Alaba au besterikan ez degu, jauna.

Eskrib.— Ez dizut ori galdetzen: Semia noizko dezuben; zergatikan guk beñepeñ,... egiñ bear degubengan zuk aurretik egiñ dezubena, esaten degu modu onetan: Aitaren, Semiaren, Espiritu Santubaren izenian, amen.

(Mutilla exeritzen da nolabait, eta galdetutzen diyo bere nagusiyak:

Eskrib.— Jose Mari, pasatu al zaizu Pillipa Anttoñirekin arrapatutako mokillua?

Mutilla.— Bai, jauna. Batere buruko miñikan ez daukat; ernai-ernai nago, berriz ere edateko gogoarekiñ.

Eskrib.— Ondo da. Badakizu zer egin bear dezuben?

Mutilla.— Bedorrek esango du.

Eskrib.— Orra nun dituzuben sei txartel edo zedula personalak. Kañi-rena bat. Pantxika-rena bi, Patxi Gaizto-rena iru, Makaria-rena lau, Benigno-rena bost, Añittoni-rena sei; eta eskribatuko diyezu kontratuba, galdetubaz zer kondiziyo, zer tratu edo zer nai duten guziya.

Mutilla.— Bai, jauna. Bañan... zer txartel-jenero dirade abek? Ez nuke gero Burgos aldera joan nai, eskritura paltso bat eginda.

Eskrib.— Zuk ez daukazu nik aginduba egin besterik. Ezer izango balitzake, ementxen nago erantzuteko; eta bestetik, berriz, Sagastarekin txit ondo daukat. Geren denboran au baño pekatu aundiya-gorik egin izandu ez bagenduben,... Pedro Boteron ontzirik ikusi gabe... zerura zuzen-zuzen joango ginañake. Bañan ai! Pernando Amezketarrak esaten zuben bezela, eskribau bat bakarrik ez dala arkitutzen zeruban... eta ez da izango.

Mutilla.— Ondo da, ondo. Bedorrek firmatu bear du ta... balijuake oiaren gañera lo pixkatxo bat egin dezan, kontratuba bukatu bitarteko denboran. Lasai-lasai egon bedi. Neronek deituko diyot, irakurri bear diyen orduban.

Eskrib.— Adios, jaunak; gero arte.

Seiak.— Bijua ondotxo, eskribau jauna.

(Ezkutatzen da iduritegitik eskribauba.)

Pantx.— Gizonezkua izateko bai berritxuba dala eskribau itz-jariyo ori!

Mutilla.— Bai; osoro iztuna eta atsegiña da, batez ere dirubaren doñuba sentitzen duben lekuban. Oraiñ abiya gaitean egin bear deguben lana al dan garbiyena txuriyian beltza ipiñitzen. Tira, Kañi Etxekalte: zer agindutzen diyozu zure seme Benigno-ri, ezkondu eta bizi-modu berriyan saiatu ditezen?

Kañi.— Ogei ta bost asto, jauna: amabi, belarri motzak; eta beste amairubak, iru ankekuak.

Mutilla.— Iru ankeko astuak ere izaten al dira?

Kañi.— Bai, jauna: gurekin gosiak nola egon bear izaten duten, bizkarrian eteratzen zaiote irugarren anka.

Mutilla.— Ederki dago; amaika orrelako kontu adituta jaijo giñan gu mundura. Beste gauza bat: orain edo beriala nai diyozkatzute entregatu zuen semiari astuak?

Pantx.— Oraiñ ezin genentzake; lapurtutzian,... da esatia, jabiak lotan edo... deskuidatzen diradenian.

Mutilla.— Eta zer egin bear dute bitarteko denboran, astorik gabetanikan?

Pantx.— Oraiñ bezelaxen ibillitzia daukate, nun illundu an ostatu, begiyak argi-argi jarririk, legorrez arrantza egiteko garrangak beti berekin dituztela.

Mutilla.— Ongi da. Zu, Patxi Gaizto, zer agindutzen diozkatzu zure alaba Anttoñiri, bere martin-demoniñua zelebratzen dubenerako?

Patxi.— Ogei ta amairu karobi, jauna.

Mutilla.— Zuenak al dira karobi aiek guziyak?

Makaria.— Ez, jauna; bañan noiznai sartu leitezke. Iñoiz edo berriz jabeen zartateko batzubek artutzia besterik etzaiote kostatuko.

Mutilla.- Nuntsu daude karobi oiek guziyak?

Makaria.— Tolosatikan Berastegira bitartean. Gañera dira oso ezagunak; denetan gure señaleak badaude.

Mutilla.— Eta zu, Benigno, konforme al zaude aitag eta amak agindutzen dizkitzuten asto oiekin?

Benigno.— Konforme egongo ez naiz bada! Amaika gutxiyagorekin ezkondutzen dira, jauna.

Mutilla.— Zu, Anttoñi: ogei ta amairu karobi esan diradenakin, konforme arkitzen al zera?

Anttoñi.— Bai, bai, bai, jauna. Nik ezkondu egin bear detala agudo! (*Bullaka.*)

Mutilla.— Kañi, besterik... zer eman nai zeniyoteke zure seme eta errañari, ezkondu eta ondorenian?

Kañi.— Gu bizi geran arterañoiko maia, jauna.

Mutilla.— Nolakua da maia: piñuzkua edo in-txaurrezkua?

Pantx.— Ez, jauna; ez bata eta ez bestia. Lurrez-kua da gure maia.

Mutilla.— Lurra janta bizitzen al zerate?

Pantx.— Ez, jauna. Guk maia esaten diyoguna da... nola egoten gera txutikan... eta exerita... ta... e-tzanda ta...? Bedorrek badaki, bai, zer esan nai de-tan gutxi gora-bera.

Mutilla.— Bai, bai; badakit zer esan nai dirazun. Eta zuk, Patxi Gaizto, karobiyaz gañera... zer eskeiñ-tzen ditzetzu zuen alaba eta suiari, ezkondu eta on-dorenerako?

Patxi.— Au esan, ori esan, ura esan, berdin-berdin kostako zait noski. Ara bada: gu geran arterañoiko ganbela.

Mutilla.— Gizona! Gizona! Animaliyak jaten dute ganbelatikan.

Makaria.— Bai, jauna. Arrazoi du ortan. Bañan... guk ganbela esaten diyogu, besteren baratzetara joan, aietatik ekarritzen dana jan —eta balego nai dan gu-ziyan!—, naiz gero preso eraman.

Mutilla.— Orra bada, Benigno: zer derizkiyotzu? Bi guraso-aldiyak aditzen dezute nola maitatzen zai-tuzten.

Benigno.— Naiago nuke biyon gurasuak ezertxo're ez baluteke; zergatikan ezer izan ez bazuten, ez genduben kontratuba egin bearrik eta aspalditik ezkonduta geunden. Ernegatuazi dirate oraiñtxen.

Mutilla.— Pazientziya, gizona, pazientziya!

Benigno.— Pazientziya? Errezago esaten du bedorrek.

Mutilla.— Zu, Anttoñi...

Anttoni.— Ez neri ezer galdetu. Nik ezkondu egin bear detala!... Illko naizela bestela!

Patxi.— Nere alabak orrelako gogua daukan ezkerero bere burubari arrika emateko,... nai dezute gañerako kondiziyuak eskribauban mutillan iritzira eskribatu ditzan, berak ondoena derizkiyon moduban?

Bostak.— Bai, bai; eskribatu ditzala. (*Bullaka.*)

Mutilla. Nik uste bañon ijito obeagoak zerate. Banekiyen bezela, lendandik ipiñiyak dauzkat. Oraiñ sinistatzen dezute Jeremias-en iztar-lengusuba naizela?

Bostak.— Bai, jauna, bai. Bedorrek garrondotik ere ikusten du. Ibilli bedi azkar.

Mutilla.— Egon zaitezte lasai; berialaxen irakurriko dizute nere nagusiyak. Oiaren gañera joan da ta... deitutzero nijua. Ementxen bertan bizi da. (*Beatzarekin erakutsiyaz asi bear du ojuka modu onetan.*) Nagusi jauna, nagusi jauna, jeiki bedi agudo! Kon-

tratuba bukatu degu, eta bedorri etortzerako... nai al du kontuba kobratutzia?

(Nagusiyak barrendik erantzuten du.)

Eskrib.— Ibaiaren doñubarekin ez det aditzen zer esaten dezuben; berialaxen or naiz.

X

Lenguak eta eskribauba.

Eskrib.— *(Begiyak igurtziyaz.)* Jaungoikuak di-zutela egun on.

Seiak eta mutilla.— Baita bedorri ere alaxen di-yola, eskribau jauna.

Patxi.— Ondo lo egiñ al du?

Eskrib.— Ez biziro ondo; gau guziyan ametsetan ibilli naiz.

Makaria.— Zer amets-modu egin ditu, D. Braulio jauna?

Eskrib.— Asko egin ditut; bañan bat da guziyai eraiña.

Kaõi.— Kontatutziaz mesede egingo al digu?

Eskrib.— Bai, eta atsegin aundiyarekin: nik kontratuba irakurri bañan lenago amasei duruak paga-

tu dizkidatzutela egin det ametsik gozoena; eta, du-darik ez dagon bezela, esnatu naizenian, batere dirurik gabe arkitu naiz. Ametsetako moduban orain gelditu ez nadin...

Pantx.— Esan diyogu len ere ametsetan dabille-la bedorri; dirulari nola dan,... beti dirubarekin da-bill, txerri gosia ezkurrarekin bezela.

Eskrib.— Bai; mundu onetan diruba biar da bi-zitutzeko ta... gañera petardo asko eraman ditut nere denboran, orrelako eskriturak eginda. Berarengatik, bada, irakurri bañan lenago nai nituzke aurretik... Amasei duro da zuen kontuba.

Benigno.— Ezkondu bitartian utzi bezaio kontu-ba eskatutziari; zergatik danbolin pagatubak doñu txarrak jotzen ditubela esan oi da.

Eskrib.— Ori ala da, baño... ez dizutet irakurri-ko zuen kontratuba, ez banazkitzute pagatutzen ama-sei duruak aurretik.

Benigno.— Entzun beza, Don Braulio jauna: nik edo nere gurasuak ez badiyogu pagatutzen bear be-zela kontuba,... neri agindu dizkidaten ogei ta bost asto bedorrentzat izango dirade.

Eskrib.— Ogei ta bost asto aña agindu dizkitzu-te zure gurasuak?

Benigno.— Bai, jauna; kontratuban ortxen kos-tatzen dira.

Eskrib.— Eta zu, nobiya, zer agindu dizkitzute zure aitak eta amak?

Anttoni.— Neri? Ogei ta amairu karobi, jauna.

Eskrib.— Karobi oiek guziyak neretzat izango al dira, ez banazute pagatutzen nere kontuba?

Anttoñi.— Bai, jauna, bai; bai eta ere... nik nere denboran arrapatzen ditudan txerriyak eta... gañera gañerakuak.

Eskrib.— Emakumiak eragiñaziko ez lukian gauzarik ez da. Denboraz zerate bada ezkontuta. Irakurritzera nua zuen zorioneko kontratuba.

(Abiyatzen da irakurritzen, eta beste sei ijituak, eskubak igurtziyaz, far iduriyan ari dira esaten abopian:)

Seiak.— Geldituko aiz baraurik... Geldituko aiz baraurik... Geldituko aizela baraurik!

Lúmero 809 millones.

Eskrib.— En este carrerape de Allapurco, a 49 de Marzo de 1800 eztakit, jaunak, ante mí el incendiario D. Braulio Seiburu, Anotabolonios del sin lustre Colejiyo de Belauntzaco, y testigos que al piñal se lombrarán, compandijeron alde batetik Rau Kañi Etxekalte eta bere emazia Pantxika Txistu, viuda de

veinte maridos y en la actualidad soltera; por otra parte edo beste aldetik Patxi Gaizto y su esposa Makaria Txanpon-txurrut, comprome lo custipican con sus cédulas impersonales espedidas paltzipicadamente neronek Baionan datorren urtian con sus correspondientes lúmeros: 28 cientos, 30 cientos, 38 cientos y 40 cientos errespetivamente.

Hallándose, según aseguran, batere gozorik gabe neguba dalako, ezeren eskubide gabe kanpuan ezer ez dagoalako; ni izanik Anotaboloniyo Allapurkoa, eskritura au egiteko eta gañera nobiyo oiek ezkonduzeko daukate lizentziya eskatuba eta emana beren gurasuak, eta nik ematen diyot fedia.

Que toros compandicientes se hallan conformes en que Benigno Eltze-konpontzalle eta Añttoñi Txerri-arrapatzallia han de contraer entre sí ilegítimo martindemonio, para lo cual, beren itzakin que murtuamente se dan de persente, pervio el contzejo pavorable perdido y obtenido por mismos de sus padres, contraen el compormiso informal de esposailles por el presente instrumento, a cuyo cumplimiento obligan toros en ilegal e informal.

A fin de que denbora guztiyan conste lo que cada uno de ellos trata de aportar al martindemonio y la manera en que han de vivir, pactan como sigue:

Los compandicientes Rau Kañi Etxekalte y su esposa Pantxika Txistu dicen que son arrandetarios

de San Esteban atzea, y dicen que esperan tener en ella 25 burros cuando... pueden o cuando... arrapatzen dituztenian, y proyetan arrapatzia amabi belarri motzak eta beste amairu iru ankekuak, estos para su hijo Benigno; y se obligan Patxi Gaizto y su esposa Macaria (a) Txanpon-txurrut dar a su hija Añttoñi (a) Txerri-arrapatzalleari ogei ta amairu karobi, Tolosatik Berastegira dauden bitartekuak beren markakin.

Hechas las precedentes manifestaciones, los mismos Rau Kañi Etxekalte y su esposa Pantxika Txistu desiatzen dute beren aitan konpañiyan bizitutzia San Estebango atzian, y lo mismo Patxi Gaizto y su esposa Makaria, y vivir orandaño bezela denak batian. Ezkontza au egiten da kondizio oietan:

Lendabizikoa: Kañi eta bere emazia obligatzen dira ematia beren seme Benignori ogei ta bost asto, aurretik esan diran bezelakoak, ezeren irabazirik eta galdurik gabe.

Bigarrena: Patxi Gaizto eta bere andre Makariak ere eman biar dizkiye beren alaba Añttoñiri ogei ta amairu karobiyak beren marka eta miradore gūztiyakin.

Irugarrena: Ezin emango diye ezkonberriak jateko, bere buruba illtzen duben txerririk, beren gurasuai, iñolako moduz.

Laugarrena: Gaur edo bigar elkarrekin ondo ez balirake etorriko bi zar-aldiyak eta gaztiak, aitzenekuak beren bururik ezin botako dute udetara; ñapetara edo ardotara bai. Zarrak ere kondiziyo au bera daukate.

Bostgarrena: Anttoñi eta bere senar Benigno obligatubak daude astian arrapatzia bi asto, ogei ta bostak osatu artian; eta bi txerri gizen ekarritzia San Estebango atzera, gurasoen eta beren bolsillubak batere kalterik ez dutela.

Seigarrena: Seietan pianorik ederrena dubena obligatuba dago otordu guzietan doñu alai-alaiak jotzia, besteak dantzatu ditezen.

Zazpigarrena: Aitzenik, seiak daude obligatubak bata bestien inbirik gabe begiyak ernai-ernai idukitzia zerbait dagoan lekuban, naiz gero lo-papera egin, jabiak kejatutzen badira.

Bajo cuyas cláusulas se otorga esta escritura de capitulaciones martindemoniales, a cuyo cumplimiento se obligan toros en ilegal forma. Así lo otorgan y no lo firman por no asegurar que saben escribir, y a su erregu no hacen dos testigus que como tales no se hallan presentes, D. Matias Beti-presu y D. Bonifaciyo Burgos-en Illtzana, vecinos de Berak-jakingo-dute.

En fe de todo del conocimiento de los otorgan-tes de su profesión y sin vecindad y de los intestigus

de haberles leído íntrigo este instrumentu marcial por preferir así toros, sin embargo de ser alvertidos del derecho que tienen de leer por sí, signo y firmo yo el Anotabolonio. — Braulio Seiburu. — Matias Betipreso. — Bonifaciyo Burgos-en Illtzana.

(Bukatutzen dubenian eskribaubak bere irakurgaia, mutillak esaten diye kontratu-zaleai:)

Mutilla.— Jaunak, konforme al zerate nere nagusiyak irakurri dizkitzuten kontratuko kondiziyo oiekin?

Seiak.— Bai, jauna, bai; konforme ta gañera txit kontentuz gaude.

(Orain agertzen dira iduritegiyan egintzalle guztiyak eta kantatutzen dituzte bi bertso oiek zortziko pollit batian.)

Euskera degubela
biyotzetik maite,
gure etsai guztiyak
ondo badakite;
Ama koroi ederrez
dezaguben bete,
eguzkiya zerutik
erortzen dan arte.

Ijituak zeñ diran
ongi badakite,
egiten diztelako
milla milloi kalte;
oien ezkontza laxter
ikusiko dute...
Bukatutzeko ez da
joango ordu bete.

*(Jendiari burubekin agur egin ta itxitzen da idu-
ritegiya.)*

BIGARREN EGINTZA

EZKONTZAREN ABIYERA

I

Lendabiziko irudiya

(Iduritegiyan agertutzen dira nobiyua eta nobiya silla banetan exerita. Eskribauba alde batetik eta bere mutilla bestetik, oiek ere aurrekoen moduban; laurak ondo xamar jantziyak, eta pianuaren laguntzarekiñ asitzen da kantatzen.)

Eskrib.—

Biyok zaudete neketan,
nai eta nai ez penetan,
jarririk silla banetan.

Mutilla.—

Zenbat denbora daramakiten
nobiyo biyak kezketan!!
Aspertu gabe lan ontan,
ezkondu bitza gaur bertan,
Sagastak dauzkan legetan.

II

Bigarren irudiya

Lenguak eta Brixko.

*(Inpedimentu edo eragozpenakin agertutzen da
Brixko izena duben galai gazte bat.)*

Brixko.— Eskribau jauna, eragozpena jarritzen
diyot mirabe paltso oni. Eta egin bedit mesede oraiñ-
dañoko lan guziyak desegitia.

*(Nobiya abiyatzen da negarrez Magdalena bat ba-
litzake bezela.)*

Eskrib.— Zergatik jarritzen diyozu Añttoñiri in-
pedimentuba?

Brixko.— Zergatik... utziko al dit nere sentimen-
tu bat kantatzen?

(Oraiñ eta negar geiago egiten du nobiyak.)

Eskrib.— Bai, bai, adiskidia; kantatu ditzatzu nai
dituzuben guziyak.

(Belauniko jarritzen da, pañuelua begiyetan dubela, nobiya.)

Brixko.—

Erantzun nazu txit garbi,
biyotz nereko Añttoñi,
zuria ez al naizen ni.
Ez al gaude gu, maite neria,
(Besoak zab.)
itzak emanta elkarri
zure aita ta amari?
(Ukabilla jarrita.)
Nola ukatu zuk neri,
galairik ederrenari?

Eskrib.— Egizak al dira zuk Añttoñiri kantatu diozkatzuben itz eztitsu oiek guziyak?

Brixko.— Añ egizak ezikan... Jaungoikoa zeruban dagoan bezela. Begiratu besterik ez dago, ni agertu nintzanetik ixuritzen zaizkan malkoak. Berriz kantatzera nua, eskribau jauna.

(Pianuaren laguntzarekin.)

Brixko.—

Ez dubelako baliyo,
ni ez naiz gezur jariyo,
txit benaz ari naitzaio.
Orain bedorrek eguzki oni
bertatik galde bezaio;
berak erantzungo diyo
ni naizen bere nobiyo
edo paltsiya dariyo.

Anttoñi.— Jesus! Jesus milla bider! Au lana! Aita San Antonio gloriosua! Ama Santisima Doloretakua! (*Iltzera balijuake bezela.*)

Benigno.— Zer dezu, nere biyotzeko kuttuna? Onen gezurrarengatik negar egiten dezu?

Anttoñi.— Gezurrak? Auxen da lana, auxen!

Benigno.— Eskribau jauna, lenbailen emengo kontubak garbituzeko moduba egin bear du: nere nobiyarekin ez naiz batere fiyatzen. (*Burubari eragiñaz.*)

(*Pianuaren laguntzarekin.*)

Eskrib.—

Izketan edo bertsoetan
erantzun oraiñtxen bertan:
ote zabilta tranpetan?

Añttoñi.—

Ai, nere Jauna! Zeñek sartu nau
lanbide triste oietan?
Al det paltatzen ezertan
zu saldubakin zorretan
edozeiñ preziyoetan?

Benigno.—

Naiz erosi ta naiz saldu,
(*Garbo aundiyak.*)
nik bear zaitut konpondu,
baldin Jainkoak nai badu.
Ezpatarekin bear zaituzte
ementxen bertan laurdendu.
Brixko, zeñ geran azaldu,

(*Brixkori beg.*)

naiz nik gaur biziya galdu,
ez dezu bear ezkondu.

Brixko.—

Negarrez busti-bustiyak
Añttoñitxoren begiyak
daude testigu... garbiyak.
Zertarako guk bada jokatu
elkarren kontra biziya?
Gaurko gu biyon auziyak
daukazkit irabaziyak,
Jaungoikuari graziyak.

Benigno.— Zer! Zuk auziyak irabazi neri? Beste moduz itzegin gero; bestela... ezetz zuk nik bezelako pruebikan agertu eskribauban aurrian, justiziya legez egiten badu beñepein?

Brixko.— Ia bada zer pruebak agertutzen dituzuben ni menderatzeko. Azaldu, azaldu azkar; emen gezurak ez du baliyo.

Benigno.— Orra nun duben, eskribau jauna, lengo Maiatzaren berrogeiyian Añttoñik egin ziran karta. Irakurri beza.

Eskrib.— Irakurritzera nua. (*Irakurtzen du.*)
«Nere Benigno belaunekoa: Nere gogua bezelakua baldin bada zuria, alik eta laxterren zurekin ezkondu nai nuke. Agur! Añttoñi.

Brixko.— Nik ere onek egindako karta badet: letu beza.

Eskrib.— Letutzera nijua. (*Irakurtzen du.*) «Nere Brixko eskubiko belaunekoa: nere gogua bezelakua baldin bada zuria, alik eta laxterren zurekin ezkondu nai nuke. Agur! Añttoñi».

(Brixko ez bestiak lo-paperian gelditzen dirade.)

Eskrib.— Ikusten dituzute bi karta, biyak bat diruditenak. Bada nik ez daukat erabakitzeke modurikan. Ez ote du gure Jaungoikoak milagoren bat egingo? (*Bullaka.*)

(Esnatutzen ditu bostak eta bi guraso-aldiyak dijoaz igesi.)

Eskrib.— Begira, begira (*irurai esanaz, beatzarekin erakutsiyaz*): ara nun datozen iru persona aundizki... Ez banaiz engañatzen, dira oiek... Jo zazute martxa erriala aguro.

(Abiyatzen dira jotzen eta sartutzen dira Erregearekin bi laguntzalleak, belaunikatzen zaizkiyotela iruditegiyan daudenak; exeri bañan lenago, Erregiak gal-detutzen diyo eskribau jaunari.)

III

Irugarren irudiya

Erregia, bere bi laguntzalleak, eskribauba, Brixko, Benigno eta Añttoñi.

Errege.— Zer pasatzen da gaur emen, eskribau jauna?

(Lendabizi eskubiko eskuban muñ egiñ eta erantzuten diyo.)

Eskrib.— Zori onian agertu dira onera! Beok persona aundizkiren batzubek dira, nai ta nai ez. Zer pasatzen dan esango diotet bada. Benignooren gurasuak, Añttoñiren aitak eta amak, tratatu dute beren seme-alabak ezkonduzia gaur bertan, Sagasta'k dauzkan legetan. Kontratuba eragiñazi dirate; eta, ezkonduzko txit leial jarri diradenian, agertu zaie eragozpenarekin Brixko izena duben galai gazte au. Nola Benignok ala onek, badirudite arrazoi dutela, zergatikan dauzkaten karta bana, oraiñ negarrez dagoan nobiya orrek egiñak, alako moduban ezikan... ni gelditu naiz beñepeñ ez zerurako ta ez lurrerako. Nai baldin badu, irakurriko dizkiyot.

Errege.— Ez det nai irakurritzia, zergatikan ni ez naizen ijitoen Erregia. Etorri bear ta iritxi naiz onera. Bañan nai bazenduke egiñ justiziya bear bezela, nik erakutsiko dizut nola egin bear dezuben.

Eskrib.— Jaunak, barkatutzen diyotet... justizi zuzenaren... bear geralako gaur beñepeñ. Arren ta arren! Ainbeste mesede egin bear digu; bestela gal-dubak gera. Tira, errege leiala, asi bedi.

Errege.— Ondo da. Bada nik egingo det Salomon jakintsubak egin zubena. Tira, Yurreamendi: laurdendu zazu Añttoñi ezpatarekin.

(Eteriaz bere gerriko ezpata, eldutzen diyo ezkerrekin eskubiko eskutikan nobiyari; jarritzen da, laurdentzera balijuake bezela, nobiya zerura begiyak altxiaz, kupitutzeko moduban.)

Benigño.— Ez laurdendu, ez. Izan dedilla Brixkorentzat nere izarra.

Brixko.— Laurdendu, bai, laurdendu.

Errege.— Salomon-en denboran ere au berbera edo berdintsuba pasatu zan. Ama egiazkuak etzuben nai izandu bere aurra erdibitzia. Gezurretan zebillenak, berriz, erdibitzeko esaten zuben. Emen Brixko da paltsiyan dabillena. Gañera, nere begiya ez bada engañatzen,... ondoren agertuko da nolako txoriya dan au. Zu, Idiakez: jantzi zazute tunika eta txano beltzakin. *(Jantzitzen diozka.)* Moztu zaiozu buruba ezpatarekin Brixkori.

(Jarritzen da ezpatarekin buruba ebakitzeko posturan.)

Brixko.— (*Triste-triste.*) Utziko al dit iru edo lau bertso kantatzen, ill bear detan ezkerok?

Errege.— Kantatu ditzake, bañan azkar ibilli.

Brixko.—

Auxen da, au, sententziya!

(*Besoak zabalik.*)

Jaungoiko maitagarriya!

Jauna, miserikordiya!

(*Kanpana abiyatzen da joaz.*)

Illda banengo bezel-bezela

naukate beltzez jantziya,

aditubaz agoniya.

Zori gaiztoko nobi ya!

Orrek egin dit paltsiya.

(*Nobi yak farrez kantatzen diyo:*)

Anttoni.—

Noiz egin dizut paltsiya,

lapurtxo gaizki eziya,

zomorro tranpaz josiya?

Zuk lapurtu nai zendubelako

Benignon perla txuriya,

dezu guztiz mereziya

kendutzia gaur biziya,

pikaro gaizki aziya!

Brixko.—

Zer da nerekin gertatzen?

Iñortxok ez nau maitatzen,

baizikan naute saldutzen;
ez bazaio gaur Erregeari
esandakoa damutzen...
Abiya nadin galdetzen
ote dan errukitutzen:
Ez al dit neri barkatzen?

Errege.— Ez dago barkaziyorik; justiziya justiziya da.

Brixko.— Libratutzeko itza ematen badit,... esango diyot oraiñ lau urte egin nuben pekatu aundiye-netako bat. Nai al du esatia?

Yurrea.— Bai; nai du esatia... Bañan bere itzikan ezin jan lezake, zergatikan Errege katolikoa eta fuerozalia dan.

Brixko.— Zer egingo degu bada! Ill egiñ bear eta nik ill bear! Mundutik joan bear dedan ezkeru, esatera nua. Errege jauna, erri txiki bateko elizatxo batetikan kaja diruba lapurtu nuben eta...

Idiak.— Gañera ori? Jaungoikoa gaur gure Erregearekin dabil. Nola asmatu dizuben zer aparejuba zeraden! Amar bizi izan ta ere, bat bakarrik ez lizuke barkatuko.

Brixko.— Zergatikan ez?

Yurrea.— Zergatikan Gipuzkoako fueruak juramentatuak daduzkan. Eta emengo fueruak garbi-garbi esaten du, Elizatikan lapurreta egiten dubena

illtzeko. Orain, kantatu bear dituzubenak kantatu aguro.

Brixko.—

Errege noble-noblia,
biyotz biguñan jabia,
kupitu bedi ordia!
Arren ta arren, arren, mudatu
beza Fueroko legia!
Naizelarikan pobria,
naiz lotsarikan gabia,
gezurran adiskidia.

Errege.— Nik ezin nezake mudatu Gipuzkoaren legerik. Bidezkoa naizen bezela, errespetatu nai nituzke beti. Gipuzkoatarrak bakarrik dute egitekoa mudatutzeko, berai konbeni zaizkatenian, eta aski degu.

(Gurutze santuba ematen diyo eskribauak orain.)

Brixko.—

Jaungoiko Santu-santuba!
Jaungoiko errukitsuba!
O Jesus gurutzetuba!
Lapurreta ta... nobiyangatik
naukate kondenatuba;
iritxi zait, ai!, orduba
galtzeko nere buruba,
auxen da, auxen, paguba!

(Moztu baliyoteke bezela, berak sartutzen du txanua leporaño, eta eroritzen da atzeko aldera. Eskri-

bauak eta mutillak eteratzen dute iduritegitik kanpora.)

Errege.— Eskribau jauna, emen arkitzen geran ezkeru, nai genduke ikusi Sagasta eta Canovas bezela ezkontzen ote diran emengo ijituak.

Eskrib.— Txit ondo da, jauna. Deia egitera nua lendabizi.

(Eta egiten du modu onetan.)

Daude konforme elkarrekin ezkontzeko, Canovas eta Sagastak dauzkaten legetan, Benigno Presondegi eta Anttoñi Txerri-arrapatzallea; iñork baldin badu eragozpenik, agertuko da neregana. Orretarako, jakiñaren gañean jartzen zaituztet ez dakitala nungoak diran.

(Belauniko jartzen dira bi nobiyuak.)

Eskrib.—

Bear dizutet nik galde
zaudeten biyok konforme
egiñik senar ta andre.
Oraiñ kantuban erantzutiaz
egin nazute mesede.

Bi nobiy.—

Bai, jauna; egiñak gaude
batere dirurik gabe...
Ezkondu gera debalde.

Eskrib.— Abek ijito farragarriyak! Ni beti tentatu bear! Dirurik ez bazenduteke...

Eskrib.—

Ezkondurikan zaudete,
pozkiroz bizi zaitezte
eltziak nai duben arte.

Mutilla.—

Berialaxen zuen fortuna
ikusi bear dezute.
Elkarrekin amar urte
pasa nai al zinduzteke?

Ezkonb.—

Jauna, ala nai genduke.

(Mutillak botatzen du aidean eltze bat eta esaten du:)

Mutilla.— Amar urterako ezkonduak zerate.

Ezkonb.— Ondo da, jauna.

IV

Laugarren irudiya

(Orain sartutzen dira gurasuak eta *Baratzako pikuen* doñuban dantzatutzen dirade, bakoitza bere modura, lagunikan gabe. Dantza bukatutzen dute-

nian, gelditutzen dira iduritegiyan bi guraso-aldiyak, Errege bere bi laguntzallerekin eta eskribauba. Gañerakuak izkutatzen dira.)

Patxi.— Zenbat da bedorren kontuba? Atzo esan ziguben, baño lo eginda aztu egin zait, neri beñepeñ.

Eskrib.— Neroni ez nago seguru-seguru zenbat esan nizuten atzo. Dana dala, beste batzubek izan balira, amasei duro; bañan zuek zeratelako, egin zazute emezortzi.

Patxi.— Ja, ja, jai!

Eskrib.— Ez banazute agudo pagatzen, Erregek egin bearko du justiziya.

(Erregek burubarekin ezetz egiten du.)

Makaria.— Nik kantatuko dizkiyot, eskribau jaina, gure iritziyak.

(Zaldi zuriyaren doñuban.)

Ilitzen geradenian,
gure gauza denak,
piano ta organo
diran onenak...
Nola diraden oiek
jatorriz gerenak,
gaur eta egun dantzan
ibilltzen diranak,
guziyok baimenak
dauzkagu emanak,

bedorrenzako izan
bitez, bai, laurdenak...

Ez gera portatutzen
noski zekenak.
Oraiñdaño gelditu
bada baraurikan,...
ez du gero izango
jatekorikan.
Ez badauka gu bañan
lagun oberikan,
ez daduka beterik
bere sabelikan.
Noiz eta nondikan
izan dirurikan
pagatzeko bedorri
bere jornalikan?
Sinistu ez dubela
artzekorikan.

Eskrib.— Arrigarriya da nere pensamentu guztiyak beti aldrebes irtetzia! Laixter pagatuko zizkidatelako ustean emezortzi duruak, agindu niyon nere emazteari eramango nuala San Fermiñetan Pamplo-nara, eta orra aizkenean zer gertatu zaidan. Nai eta nai ez, adiskiden bateri eskatu biarko diozkat; bestela,... nork burutu nere Meliñttonarekiñ?

(Itzuli egiten dute ijito guziyak, eskribaubak ere bai bañan negarrez, iduritegitik kanpora. Aiek ezkutatzen diradenean, agertutzen da euskaldun guziyon Aita Aitor deitutzen diyoguna, beste mundutik

baletorke bezela, baserritar-jantzi al dan antziñakoenakin, iduritegira. Eta esan bear diye, aitona zar baten moduban, Errege eta bere bi laguntzalleai:)

V

Bostgarren irudiya

Errege, bere bi laguntzalleak eta Aitor.

Aitor.— Jaungoikoak diztela zori on guziyak.

(Irurak altxatu eta erantzuten diyo txapela erantzita Erregek.)

Errege.— Baita bedorri ere alaxen eman deizkiyola.

Aitor.— Jakindu detanian Errege bidezkoa arkitutzen dala gaur Euskal-erriyan, nator beste mundutik adoratutzera biyotz-biyotzetikan. Zeiñ da beotan Erregia?

Errege.— Ni naiz, serbitzeko.

Aitor.— Nola du izena bedorren aunditasunak?

Errege.— Nik det izena Andia-ko Domenjon.

Aitor.— Andia-ko Domenjon! Zori onekua!

(Belaunikatzen zaio bere aurrian eta, begiyetatik malkuak darizkiyola, itz egiten diyo onela:)

Aitor.— Au poza! Au atsegintasuna! Bedorri da, beaz, Gipuzkoako Fueroak ainbeste maitatzen ditubena!

Errege.— Bai, jauna, bai. Ni naiz gorde eta gordeazi nai ditudana.

Aitor.— Beok Madrillen bizi diralarikan, nola arkitutzen dira emen?

Errege.— Esango diyot bada, jauna: ijitoen tartetik etorri gera gure probentzi leialera, ikusteagatik Sagasta eta Canovas bezela ezkonduzen al diran emengo ijituak. Bada batere diferentzirik ez daukate.

(Aitor-ek kantatzen diyo Aizkibel-en zortzikoan.)

Zoririk oneneko
gure Erregia,
parerikan gabeko
zaldun txit noblia;
laixter ill bear degu
ijito-taldia, ...
gure Fuero Santuben
arrapatzallia.

Idiak.— Bai, eta denboraz; bestela, urte gutxi berru jango dizkigute ezurak eta mamiyak.

Yurrea.— Egingo al digu mesede nola dan bedorren izena esatia?

Aitor.— Bai, eta pozkiro aundiyenarekin. Ni naiz Aitor izena detena. Naiz lendabiziko euskeraz itze-

gin nubena. Naiz bere oitura, dantza eta usariyo garbi guziyak zabaldu nitubena.

Yurrea.— Jesus! Jesus! Nola milagro leiteke bedorri emen arkitutzia?

Aitor.— Nola leiteken? Lurraren azpitik irten ta etorri naiz gure Errege katoliko fuero-zaliaren konpañian, —oker esan det— lagundiyan, zortzikotxo bat kantatutzeko asmoetan, baldin beon iruron go-goa ala bada.

Irurak.— Bai, Aitor jauna, bai; nai dubenian abiyatuko gera.

(Aitor-ek Aizkibel-en zortzikuan kantatzen diye egintzaleai.)

Atozte, bai, atozte,
semetxo neriak,
Ama maite dezuten
zortziko-zaliak;
kantatzen lagunduko
digu Erregiak,
txaloak jo ditzaten
fuerista jendiak.

(Etorritzen dira iduritegira guziyak irrintziyak egiñaz, eta Erregeri agur egin ta esaten diye Aitorri:

Guziyak.— Tira, Aita maitea: kantatu dezagun bukaerako zortzikua guziyok batian.

Aitor.— Itxedon zazute piskatxo batian, jendea-ri iru edo lau itz esan bitartian.

(Jendeari.)

Aitor-ek.—

Sagasta ta Canovas
bezela ezkontzen,
noiz nere lur santuban
ziran ikusitzen?
Zerengatikan beltzak
dauden agindutzen,
ta ijito-moduban
diran bizitutzen...
Jaunak, ez al zerate
bada gogoratzen
euskerakin zer garbi
giñan moldatutzen?
Arrazoiez Errege
dezute maitatzen,
onek zaituztelako
errespetatutzen.
Zerate txit oitubak
libre bizitutzen,
bañan badakizute
Errege serbitzen.
Onek bere itzikan
ez daki ukatzen,
bañan daki Fueroak
zintzo juratutzen;
daki Ama Eleiza
libre lajatutzen,
badaki artaldea
ondo gobernatzten.

Daki gañera gerran
gogor peleatzen.
Daukazki traidoriak
beti ernegatzen,
ezin eramanikan
daude prejitutzen.
Zergatik beltz guziyak
dute gorrotatzen?
Onekin ez dalako
turroirikan jaten.
Zergatikan gerade
sakrifikatutzen?
Zergatikan egiya
degun defenditzen.
Fueristaren izenak
bagaitu onratzen,
bai ere Erregiak
guziro poztutzen,
ez degu asi bear
euskeraz kantatzen,
gure Ama ederra
zerura altxatzen?

Guziyak.—

Bai, bai, Aita maitea,
abiya gaitezen.

ZORTZIKOA

Zarrak.—

Zergatikan zaudete
euskeraren alde?



Gaztiak.—

Galdubak geralako
euskerarik gabe.

Zarrak.—

Al zaitzute aztuko
euskera beñere?

Gaztiak.—

Itzegin nai genduke
ill da gero ere.

Zarrak.—

Munduban euskera ta
lur pean ere bai?

Gaztiak.—

Euskerik ez badegu
ez degu ezer nai.

Zarrak.—

Zeiñ dala uste dezute
Amatxo guria?

Gaztiak.—

Erdera da guretzat
iñude berdia.

Zarrak.—

Zein da fueristak maite
deguben maitia?

Gaztiak.—

Gure Ama donzella
parerik gabia.

Zarrak.—

Zergatik nai dezute
euskera famatu?

Gaztiak.—

Zergatikan ez duben
iñork burrukatu.

Zarrak.—

Ez al dago esaten
Jaungoikoa bera,
esanaz «Zer ederra
dan Ama Euskera?»

Gaztiak.—

Berak birali zuben
zerutik lurrera,
egundaño galduko
ez dan parajera.

Zarrak.—

Bai al du gure Amak
blasfemiyarikan?

Gaztiak.—

Ez daki zerurako
bidea baizikan.

*(Guziyak txapelak erantzi ta eskubiko eskubare-
kin gora altxaturik.)*

Euskeraz jeki eta
ala gosaltzera,
euskerarekin goaz
gero bazkaltzera,
euskeraz nola joaten
geran afaltzera,
euskeraz goazen, goazen,
guztiyok oiera,
esanaz «Euskera da
Aitor-en bandera,
euskerarengatikan
denok illko gera».

Bukaera

**BEOTIBAR'KO JATZARRAREN
OROIPENA
GAON JUDUBAREN GALERAREKIN**

Ramos Azkarate eta Otegi'k
zuzenduba, Tolosa'n 1886garren
iñauterirako.

ZENBAIT ARGIBIDE

Antzerki au moldatzeko, beraren izenburu luzeak aditzera ematen duanez, antziñako bi gertaeratan oiñarritu zan Ramos Azkarate, biak ere bere gisa azalduz: Gaon juduaren eriotza eta Beotibar'ko jatza-rra edo burruka-aldia.

Gertaera oien berri nundik ikasi ote zuan? Ez, zenbaitek bearbada pentsatuko duanez, Tolosa'ko Pablo Gorosabel'en *Noticia de las Cosas memorables de Guipúzcoa* idazlan marduletik. Kondaira-lan au etzan argitaratu, izan ere, naiz-ta egillea 1868'an il, 1899 urtera arte. Eta Ramos Azkarate'ren antzerkia 1886'an plazaratu zan.

Gure iritzirako, egille beraren *Bosquejo de las Antigedades, Gobierno, Administración y otras cosas notables de la villa de Tolosa* liburua irakurriz jantzi zan Ramos Azkarate kondaira aldetik. Liburu au 1853 urtean argitaratu baitzan, Tolosa'n bertan, *Imprenta de la Viuda de Mendizabal* enean.

Gorosabel'ek liburu ortan diona onera aldatzea mesedegarri izango dala derizkiot, bi arrazoirengatik: bata, Ramos Azkarate'ren antzerkia danok ere obeto uler dezagun; eta bestea, kondaira noraiño irixten dan eta tolosar idazlearen iduripena nundik asten dan berezi aal izateko.

Liburuaren leenengo atalean kontatzen du Gorosabel'ek Gaon juduaren gertakizuna:

«No obstante el respetable origen y legitimidad incontestable de las mencionadas exenciones tributarias de Tolosa, y aun de toda la provincia en general, el judío Gaón, individuo de la sinagoga de Vitoria y recaudador de las alcabalas y derechos Reales, vino a esta villa en el mes de Abril de 1463 a exigir a sus vecinos y a los de otros pueblos el servicio pecuniario llamado pedido. Empeñóse en obligarles a su pago, y como a pesar de los requerimientos que se le hicieron, para que desistiendo de su intento saliese de la villa, fue muerto en ella, y su cabeza puesta en una picota. Según la tradición vulgar, bastante general en el pueblo, esta muerte tuvo lugar dentro de la casa llamada Arteagaachea, número 15 de la calle del Correo, aunque tampoco falta quien diga que ocurrió en la torre de Andía. Sea lo que fuere de esto, semejante atentado, cometido contra un funcionario del Rey, no puede seguramente aprobarse; pero al mismo tiempo tampoco deja de merecer censura la conducta de quien se empeña en arrancar un tributo nunca acostumbrado pagar y tan evidentemente contrario a las libertades, franquezas y privilegios de estos habitantes, cuyas pasiones debía excitar, maxime en el estado de las ideas que entonces domina-

ban respecto de los judíos. Don Enrique IV, que a la sazón se hallaba en Fuenterrabía en vistas con el Rey de Francia Luis XI, a quien él y el de Aragón habían nombrado por árbitro de sus diferencias, parece se irritó con la noticia de lo acaecido a Gaón; y a su regreso, que debió ser en los primeros días de Mayo, trató de vengar su muerte, castigando a los tolosanos. Mas estos, temerosos del castigo, salieron del pueblo a la aproximación del Rey, quien informado de que nunca se había recaudado en Guipúzcoa semejante servicio, y templada su cólera, se limitó a hacer derribar la casa en que había tenido lugar el atentado, pena que en aquella época estaba en uso frecuente».

Beotibar'ko burruka-aldiari buruz, berriz, onela mintzatzen da XV'garren atalean:

«Entre los hechos de armas gloriosos de los tolosanos ocupa indudablemente el primer lugar, ya por su antigüedad, ya también por su importancia, la célebre batalla de Beotibar. Dieron motivo a ésta ciertas diferencias tenidas con los navarros y la toma y demolición del castillo de Gorriti, verificadas por los tolosanos; cuyo hecho queriendo castigar el Virrey de dicho reino Ponce de Morentaina, Vizconde de Anay, juntó apresuradamente en las cercanías de Pamplona un ejército en número, según las historias, de 60.000 hombres entre franceses y navarros, sujetos a la sazón a un mismo monarca. Con estos invadió aquél el territorio guipuzcoano por la parte de Berastegui, donde quemó casas, taló campos y cometió otros excesos, anunciando su intención de hacer otro tanto en esta villa de Tolosa. El ejército enemi-

go llegó así al denominado campo de Beotibar, distante como una media legua de Tolosa, con la resolución de continuar y entrar en esta villa; pero habiéndose apostado en las montañas que dominan aquel pequeño valle 800 hombres de la compañía de la misma villa de Tolosa y lugares de su jurisdicción acaudillados por Gil López de Oñez, dueño de la casa de Larrea de Amasa, rodaron cubas cargadas de piedras que confundieron y desbarataron toda la vanguardia enemiga. Desordenado con esto el resto del ejército franco-navarro, huyó en retirada, en la que siguiéndole los tolosanos le hicieron mucho destrozo, particularmente en el pendón de Olite. Entre los muertos se cuentan Don Juan Enríquez, hermano bastardo del Rey Don Enrique el Gordo, un hermano del Virrey, Miguel Sánchez, Martín Urtiz, Juanes de Lete, Juan Martínez de Medrano y Martín de Aibar, todos de los principales de Navarra.

Esta batalla tuvo lugar el sábado 19 de Setiembre del año 1321. Desde entonces viene renovando su memoria la bordondanza o baile de bordones que todos los años se celebra en esta villa el día de su patrono San Juan Bautista, yendo el Ayuntamiento y un inmenso pueblo hacia el mismo paraje en que se verificó el suceso, con música marcial de aficionados y tamboriles, que tocan una sonata particular. Son también un testimonio de su realidad los cuadros que representando la misma batalla han existido hasta hace muy pocos años en la iglesia parroquial de Santa María. Así igualmente lo refieren varios historiadores, tales como Zurita, Zamalloa y Mariana, y lo confirma la constante tradición. Podrá suceder que en esta relación haya alguna exageración,

particularmente en cuanto al número de que constaba el ejército franco-navarro, y a decir la verdad ni parece posible el que cogiese tanta gente en el campo a que se alude; pero lo que no admite duda es que fue un suceso extraordinario y muy glorioso para los tolosanos sus auxiliares, digno por lo mismo de ser trasmitido a la posteridad. Y si por otra parte se considera cuán inminente peligro corre un ejército, por numeroso que sea, al internarse en un país tan montuoso como éste sin flanquear el tránsito por medio de guerrillas que vayan ocupando las alturas, no podrá sin duda extrañarse de que la vanguardia de los franco-navarros, que venía sin tales precauciones, fuese desbaratada por los nuestros, y que entrando de aquí la confusión en el resto de las fuerzas, resultase su huida y la destrucción de una parte de la suya. Ni faltan tampoco en la historia militar de este país, tanto antigua como moderna, sucesos análogos cuya realidad no se puede poner en duda. Muchas veces acontecimientos humanos, que a primera vista parecen sorprendentes o imposibles, se llegan a comprender perfectamente con el estudio de los lugares y de las demás circunstancias acompañantes a los casos».

Asierako bertso batean, Naparroa'ko Leitza eta Areso erriak Tolosa'ren mendean luzaro egon zirala dio Ramos Azkarate'k. Ara zer esaten duan Gorosabel'ek leen aitaturako liburu ortan:

«En el reinado de Don Juan II, durante la guerra que tuvo éste con los Reyes de Navarra y Aragón, los tolosanos conquistaron los lugares de Leiza y Areso, pertenecientes al primero de los citados rei-

nos, conservándolos a disposición de la corona de Castilla. En su consecuencia, dicho monarca castellano hizo merced de estos dos lugares a la villa de Tolosa, reteniendo en sí solamente el señorío mayor o supremo y el derecho de alcabalas, de que otorgó la correspondiente carga y privilegio. Ajustadas treguas entre los tres Reyes, los habitantes de Leiza y Areso quisieron volver a Navarra, a cuyo efecto anduvieron en negociaciones; de que noticiosas las autoridades de esta villa acudieron a Don Juan II, haciéndole presente el perjuicio que resultaría de semejante medida tanto a su Majestad como a la misma villa. Estimó el Rey esta reclamación, y a su virtud expidió en Salamanca a 20 de Setiembre de 1430 una Real cédula por la que se mandó mantener a Tolosa en la posesión de los citados dos lugares como había estado hasta entonces, amparándolos y defendiéndolos con todos sus pechos y derechos y administrando en ellos justicia en lo civil y criminal. Por pactos posteriores de los mismos monarcas volvieron sin duda los expresados dos pueblos a su antiguo reino, después de haber estado en muchos años bajo la autoridad y poder de los tolosanos.»

Ondorengo bertsoetan, Ondarrabia, Noain eta Belate aitatzen ditu Azkarate'k. Baita Labrit eta Esparroso ere. Juan de Labrit Naparroa'ko erregea zan ezkontzaz. Bestea, berriz, 1521 urtean Naparroa Gaztela'ren mendetik atera nai izan zuan gudaroztearen jenerala, frantzesaren berez. Baiña geien-geienak Asparros esan oi diote.

Oiek danak 1512 eta 1521'ean gertatu ziran. Ona emen Gorosabel'en itzak:

«Sábese por la historia qu e a consecuencia de la unión verificada del reino de Navarra al de Castilla, el Rey de Francia envió al Duque de Borbón por el mes de Noviembre de 1512 con un poderoso ejército, el cual entró por Irún. Su intento era apoderarse de las plazas de Fuenterrabía y San Sebastián, a las cuales se dirigió talando y quemando cuanto al paso encontraba, y seguidamente les puso asedio. La compañía de esta villa de Tolosa se hallaba dentro de la primera de las citadas dos plazas fuertes para su defensa; no la atacó el francés, pero sí a la de San Sebastián, de la que tampoco pudo apoderarse por la resistencia que encontró. Desistiendo pues el enemigo de su intento, subió a la montaña de Oriamendi con la idea de internarse en la provincia; pero noticioso sin duda de que estaban tomados los pasos por los guipuzcoanos, se retiró a Francia el 19 de dicho mes, atacado por su retaguardia por la guarnición de Fuenterrabía y otras fuerzas guipuzcoanas, que le causaron mucho daño y destrozo. Días después de estos sucesos entró en Navarra Don Juan de Labrit con un ejército francés acaudillado por Mr. de la Paliza, y habiéndose acercado a Pamplona la asedió y batió furiosamente; mas no pudiendo tomarla, resolvió retirarse a Francia. En tanto, el Rey Católico escribió a la provincia desde Logroño en fecha 1 de Diciembre del mismo año 1512 una carta en la que encargaba a estos naturales cortasen la retirada al enemigo o a lo menos le hiciesen todo el daño posible. No era posible reunir y arreglar, tan repentinamente como el caso lo exigía, todas las fuerzas de guipuzcoanos que se deseaban; muchos de estos se hallaban por otra parte sirviendo en las escua-

dras de su Majestad e inglesa. Acudieron no obstante al lance de que se trata 3500 hombres, entre los que se hallaba la compañía de Tolosa, cuyo contingente llegaba a unas 1500 plazas; y pasando por las villas de Lesaca y Vera, llegaron el 7 a las montañas de Belate y Elizondo, donde el día 13 derrotaron al ejército francés, apoderándose de 12 cañones que llevaba, matando e hiriendo a muchos. En tan gloriosa jornada la compañía de Tolosa estaba mandada por Alberto Pérez de Rexil, vecino de la misma villa, como lo comprueba un letrado que tiene su casa llamada de Belate, extramuros de ella, nombre dado sin duda para perpetuar este importante hecho de armas. Por estos sucesos la Reina Doña Juana concedió a los concejos de esta provincia el privilegio de la presentación de las escribanías de número, y a ésta misma la facultad de poder agregar a su escudo de armas los 12 cañones cogidos a los enemigos franceses».

Eta 1521 urteko gertakizuneri buruz, onela esaten du:

«También en el año de 1521 invadió la Navarra Mr. Andres de Foix, Señor de Esparroso, con poderosas huestes, y los tolosanos en número de más de 1000 hombres hicieron parte del ejército castellano mandado por el Duque de Nájera. Al acercarse, levantó el francés el cerco que tenía puesto sobre Logroño; pero alcanzado en Noain, aldea próxima a Pamplona, fue batido y deshecho completamente con pérdida de 6000 hombres franceses y navarros entre muertos y prisioneros, así como de su artillería, hallándose entre los últimos el mismo General Foix. Los Tercios de esta villa tuvieron una parte tan impor-

tante en esta batalla que el Almirante y Condestable de Castilla ponderan su mérito y hacen un aprecio particular en la carta de gracias dirigida a la provincia con este motivo, que debe existir en el archivo de la misma».

Leen esan bezela, argibide auek eman bearrak ziran, Ramos Azkarate'ren antzerkia ondo uler dezagun.

KALEKO BIRUNKA

Euskaldunak gera ta
ez degu damurik,
ez degu ukatzeko
artu nai asmorik.
Nun arkitu gentzake.
Ama bat oberik,
onek aña zorion
eman dizkigunik?
Mundubak ondo daki
zeradela fiña,
umanta guzientzat
beren erregiña.
Biba! Biba euskaldunak!
Biba tolosarrak!
Biba Beotibarko
gudari azkarrak!

JOAIRA

Tolosa'n jaiο giñadelako
au degu gure biyotza,
au degu geren atsegiña ta
auxen da guziyon poza;
Paradisotik eroritako
usai gozozko arrosa,
au len omen zan Iturriza ta(1)
au da gaur berriz Tolosa.

TOLOSARI ZORTZIKOA

Zaitugu maite, baita maiteko,
ai, ai, Tolosa guria,
zaitugu begi onez ikusten,
amatxo noble-noblia;
ama gozoa, ama aundiya,
ama txit miragarria,
zaitugu ama eta señoira
omen askoren jabia.

Zer milagro da ama
ondo maitatzea
eta bere omenez
gogoratutzea?
Ama on-egillea
gaizki pagatzea
guretzako litzake
lotsa galdutzea.
Zaitugu maite, etc.

Milla irureun ta
ogei eta bata
betiko da guretzat
oroipen galanta:
ziñadelako egiñ
ziñezko umanta,
nai dizute semeak
glori ura kanta.
Zaitugu maite, etc.

Beotibar daukazu
onrarik zarrena,
iya sei gizaldiyak
daramazkiyena;
da arki dezazuken
omenik goiena,
ta Ponce Morentaiñen
lotsa gogorrena.
Zaitugu maite, etc.

Leiza eta Areso
berriz ondorean
luzaro egon ziran
zedorren mendean;
ta Ondarrabiyako
uri leialean
beti porta ziñaden
onrik goienez.

Zaitugu maite, etc.
Zure omenak dira
Noaiñ ta Belate,
Frantzi alde orretan
ondo badakite;

Esparroso ta Labrit
bizi balirake,
zu nor izandu zeran
esango luteke.
Zaitugu maite, etc.

Zergatik omen onak
eman dizkigutzun,
orra zure semeak
gaur nola dauzkatzun;
maite zaitugubela
sinista dezazun,
«Amarengatik ill! Ill!»
nai degu erantzun.
Zaitugu maite, etc.

LENDABIZIKO EGINTZA

GAON JUDUBAREN GALERA

Gurasoak:

Gure alaba maite-maitea,
orain baitala orduba,
nai badituzu zereganatu
senar bat eta diruba;
arren, ar zazu ezkonduzkeko
benazko pensamentuba,
bestela gure etxe baztarra
laxter da oso galduba.

Badatorkigu senar-gai ori
zakuba diruz beterik,
galderatxo bat zuri egitera
onera bakar-bakarrik;
etzaiozula ezetik esan
baizikan baietz pozturik,
ez dagolako mundu onetan
dirurik gabe gauz onik.

Senar-gaiak: Jaungoikoak diyela egun on.

Gurasoak: Ongi etorri zerala.

Alabak: Nola da dure graziya?

Senar-gaiak: Ni naiz Praisku Antonio Errotaberri-
rrigorriegoikoerrotakoetxeberrikua eta Agirre-
gomezkorta, Matxinbentako errotariyaren semea, ser-
bitzeko.

Alabak: Ja, jai! Alaxe uste diyat(2), bai. Sinistu-
ko nikek, nai banu. Ire jantziyari begiratu besterik
etziagok.

Senar-gaiak:

Maite polita, zerengatikan
asitzen zera desairez?
Ez dezu bada ondo egingo
nigatik gaizki pentsatzez;
ez naitzatzu ni gaitzez etorri
baizikan bide zuzenez,
jarriko zera, baña txit azkar,
zaku dirubak diyonez.

Zerorren aita-amak eta nik
itzez tratatu genduban,
esposatzeko alik lasterren
biyok aurtengo neguban;
arren, erantzun bear dirazu
daukazubena gogoan,
ikusten nazu ni zuretzako
zer gauza ona nagoan.

Alabak:

O, nere aita! Ai, nere ama!
Oriyek dira berriyak!
Malkoz bustirik jarri dizkitet
oraintxen nere begiyak;
ni gabetanik egin dituzte
tratu añ farragarriyak,
aizkenerako badatozkigu
denentzat kalte aundiyak.

Gurasoak: Ez, enetxua, ez.

Alabak: Bai, enetxua, bai.

Alabak senar-gaiari:

Zu gauza ona baldiñ bazera
ez da munduban txarrikan,
badirudizu irten zerala
gaur bertan infernutikan;
ez dadukazu, ai! ai!, entzunik
baimena neregandikan,
ez det nik bear zu bezelako
agure itsusirikan.

Senar-gaiak:

Alderdi asko estaltzen ditu
mundu onetan dirubak,
ni ere ala edertutzen nau
bizkar gañeko zakubak;
obeagoak ez daduzkate
zenbaitek bizimodubak,
okiñarekin aserre eta
agiñak miñberatubak.

Diruba ondo dadukagunok
daukagu gauza ugari,
ez degu bear etxerik etxe
mesede billa ibilli.
Ez al dituzu iñoiz ikusi
asarre zenbait dendari,
jatekorikan eman nai ezik
dirurik ez dubenari?

Alabak:

Orrelakorik etzait gertatu
jaiotzetikan gaurdaño,
nere negarrak iristen dira
emendik Amasaraño;
bazeunde ere urrez betea
zerorri estaltzeraño,
naiago nuke jan gabe bizi
zurekiñ ezkondu baño.

Gurasoak:

Beraz ez dezu zori-gaiztoan
nai onekiko ezkontza?
Arren ta arren biguñdu zazu
gogor daukazun biyotza.
Zer dizu zuri au izan arren
agurea ta arrotza?
Kolera baño obiago da
etxian diruben otsa.

Alabak: Gañera arrotza?

Alabak:

Nola bata ta ala bestea
ari dirade alferrik,
ez det nik maite Lopez de Oñaz
galai ederra besterik;
au gabe ez da neretzat gauzik,
neretzat ez da dirurik,
ez det maiteko Euskal-Erriyan
jaio ta bizi ez danik.

*Orañ azaldutzen da agure ezkongai-papera egi-
ten ari danaren emaztea, eta esaten diyo:*

— Nun zabilta, gizon zori gaiztokoa? Badezu
lotsarik?

Agureak: Ez... bai... bai... ez.

Emazteak:

Zori gaiztoan zan neretzako
ezkondu nintzan eguna,
bada orduban artu nuan nik
lotsik ez duben gizona;
au da juduba Gaon deritzan
eskuba eman niyona,
au det senarra emazteari
igesi egiñ ziyona.

Diru ta guzi aldegin ziran
aurrak neretzat utzirik,
ez al da emen au lotutzeko,
emen ez al da sokarik?
Ume gaxoak goseak dauzkat,
ni berriz iya galdurik,
biyotz gabe au urkatutzeko
ez al dezute legerik?

Senarrak:

Gutziz ederki egiten dezu
paltsokerizko negarra,
ez naiz izan ta ez naiz izango
beñere zure senarra;
ez naiz juduba, ez naiz kristaba,
baizikan arabetarra,
familirikan eztadukadan
mutill zar bakar-bakarra.

Ume gaxoak:

Aitak amari erantzun diyo
bereak ez gaitubela,
ondo dakigu beste jaberik
munduban ez degubela;
bere umien dirubarekiñ
dabil nai duben bezela,
eta gañera Euskal-Erriyan
bete nai luke sakela.

Aitak:

Etzerate nereak, ez.

Ume gaxoak:

Aita! Ukatu gaitu betiko,
guretzat ez da gauz onik,
berorrek ere ez dauka bada
luzarorako bizirik.
Bizkar gañean ortxen daduzka
izen nonbreak osorik,
gure aita da Gaon juduba,(3)
ez dago ontan dudarik.

Jendeak:

Zerorren aurrak esan dutenez
zu zera Gaon juduba,
emen bildutzen bazabiltzana
bide gabeko diruba;
baldin probatzen badizugu guk
eman Jaunari kontuba,
Tolosan utzi bearra zera
fede gaiztoko larruba.

*Emaztea eta bere aurrak asten dira deadarka
modu onetan:*

— Erantzi, erantzi beiote gabana, eta bizkar ga-
ñean arkituko dizkiyote bere izena eta lonbria.

*Eta aiek esan bezela gertatzen da. Illtzeko jarri
eta esaten ditu itz oiek:*

Orra bi arpegiyaz
zer dan ibiltzea,(4)
eta euskaldunari
kalte egitea!
Ondo merezi nuben
sokaz lotutzea,
ondo mereziya det
lepoa kentzea.

Zertan etorri nintzan
nere erritikan,
jakiñik ez nubela
egitekorikan?
Familiya galdu det
neronengatikan,
faltsoa naizelako
nua mundutikan.

BIGARREN EGINTZA

AMA EUSKARAREN BAKARTASUNA

*Euskaldunak, beren arteko iritzi txar batzuben-
gatik, galtzen dute beren elkartasuna; eta batzuben-
Oñazinoak diralako, eta besteak Ganboinoak, era-
sotzen diyote elkarri, eta dabilta gerra biziyan,
Euskal-Erriyari kalte aundiyak egiten dizkiyotela.
Ikusirik Ama Euskarak añ era errukarriyan, itzegi-
ten diyote modu onetan:*

Ama Euskarak:

Nun zabilzate, seme ederrak,
Amari eskapatuta?
Edan zenduten bular gozoaz
ote zaudete aztuta?
Nai zinduzteket nereganatu
benetan erregututa,
zaudetelako iñudearen
esne txarrakiñ galduta.

Titi samiña edaten asi
ziñaten zori gaiztoan,
ordu ezkeroz gauza bat onik
ez daukazute gogoan;
pixkabanaka sartu zerate
deabrubaren lazoan,
Adan ta Eba orrela galdu
ziraden Paradisoan.

Iñude orrek jarri zaituzte
guziyok biyurriturik,
zer zabiltzate, ume nereak,
elkar ikusi eziñik?

Ona utzita txarraren billa
bazabiltzate nasturik,
bide orretan ez daukazute
zuentzat salbaziyorik.

Ernio mendi oñazez dago
zueidi begiratuta,
ta Orreaga beti negarrez(5)
asabaz gogoratuta;
ai!, Covadonga arkitutzen da
egiyaz minberatuta,
an dago Navas zuen galeraz
errukipen bat artuta.

Errekatxoak zapuztu dira,
ibaiak datoz aserre,
Kantabriyako ur gazi fiñak
orruak egiñaz daude;
eta ni, Ama, nola naiz arki
batere laguntza gabe,
ikusirikan seme nereak
beren borraruen alde?

Ama zarra ta Ama garbiya,
negarrez iya urturik,
zueidi deika ementxen nago
nere besoak zabalik;
utzi nazute bildots galduben
gisara bakar-bakarrik,
ez dakit nola otso artean
arkitzen naizen bizirik.

Baldiñ aurrera segi ezkeroz
oraiñ artean bezela,
ez det nik uste urte askoan
bizi izango naizela;
gauzik onenak jan dizkirate,
gertatzen naiz txit argala,
len eguzkiya baldin banintzan,
gaur ez naiz baizik itzala.

Ez badute nai zuben biyotzak
Amarengana makurtu,
gañean diran etsai gogorrek
nork eta nola garaitu?
Obe dezute alik lasterren
guziyok nereganatu,
bestela turmoi izugarriak
azpiyan artuko gaitu.

*Itz oiekiñ Ama Euskarak biguñtzen ditu beren se-
mien biyotzak, eta guziyak jartzen zaizka belauniko
bere aurrean, negarrez esaten diyotela:*

Euskal semak:

*O, gure Ama zintzo ta fiña,
Ama denetan goiena!
Oraindik iñork uztarribean
iduki etzaitubena;
zurekiñ bizi eta illtzeko
ematen degu baimena,
eta orobat garaitutzeko
etsairik biyurriena.*

IRUGARREN EGINTZA

BEOTIBAR

Mandatariak: Ama!!... Izugarrizko talderiyak sartu dira Berastegiko erriyan, eta o zer negargarritza!... Erre ta kiskali dute eliza ez gañerako guztiya... Ill dituzte arrapatu dituzten koitadu asko. Ai, ango ixkamilla ta karrasiyak!... Eziñ adierazi liteke ango ondamen tristia; eta badiyote, ausardi aundiyarekiñ, Tolosa'k ere pagu ura ber-bera izango dubela. Gorritiko gaztelubaren bengantza edo gorrotua dakarte. Arren, ibilli bitez agudo, bestela galdubak gera.

Ama Euskarak:

Zori onean, seme nereak,
elkarganatu zerate,
mandatariyak esandakoak
entzun al dizkiyotzute?

Euskal semeak: Bai! Bai!

Ama Euskarak:

Badira ere neri zerubak
esaten diran ainbeste,
nere semeak gogorrakoak
bentzutu izan dituzte.

Euskal semeak: Biba! Biba gure Ama! Biba!

*Onetan, Ama Euskara bere semeakiñ atsegiñ an-
diyan arkitzen dalarik, ara non etortzen zaien Ama-
sako galai bulardetsu bat, Gil Lopez deritzana, eta
balorez beterik esaten diye umant onek:*

— Badakit izutzen etzeratela, bañan zerk kezka-
tzen zaituzte? Napar aldetik datorkigun turmoiak?
Geienaz ere antziña bezelakoa izango da. Ez beldur-
tu! Goazen berengana eta eraso zaiogun.

*Emakume eta aurrak asten dira negarrez, ori
aditzean.*

Gil Lopez'ek:

Gogorak ziran munduko jaunak,
etzan biguña Erroldan,(6)
alaz guztiyaz guregandikan
jipoia zuten eraman;
arabetarrak ustez seguru
bizi ziranak Granadan,
euskeragatik erri galant au
geldituba zan guregan.

Euskal semeak: Biba Gil Lopez buruzariya! Biba!
Biba!

Gil Lopez'ek:

Gure odolak ez badirade
ur biurtutzen asiyak,
aztuta utzi bear ditugu
oraiñdañoko guziyak;
eska lenbizi oitu bezela
Jangoikuari graziyak,
Beotibarko zelaira goazen
onran galtzera biziyak!

Euskal semeak: Goazen! Goazen, Aitorren seme,
gure asabak bezela. Uj, u, u, ju, ju! Aurrera!

Gil Lopez'ek: Itxedon zazute pixkatxo bat. Tolosa eta Ama Euskarari agur bat egin bear diyetet.

Gil Lopez'ek:

Iltzen bagera, ez egiñ negar,
egiñ erregu gogotik,
onrarekiñ zer pena izango
degu joateko mundutik?
Gero Kondairak esan ez dezan
gaizki euskaldunakgatik,
libratutzera goaz Tolosa
su-gar aundienetatik.

Laztantzen dute pozaren pozez Gil Lopez jendeak.

Gik Lopez'ek:

Egin bearrak izango gera
ausardi guztiz zorrotza,
bildurrik gabe al daukazute
guziyok zeren biyotza?

Euskal semeak: Bai!... Bai!

Turmoi gogorak badarakarki
Egiputzura ekaitza,
ura bentzutzen baldin badegu
Ama Euskarak zer poza!

Ama Euskarak: Bai, nere semeak! Bai!

Euskal semeak:

Agur ta agur, gure Tolosa!
Agur, Amatxo Euskara!
Agur ta agur, jende leialak,
orañtxen goaz gerrara,
danboliñ-soñu ederrarekiñ
Beotibarko zelaira,
omenatuba gelditu dediñ
betiko gure kondaira.

*Beotibarren irabazirik pelea bat guztiz gogorra,
badatoz euskal semeak soñuba joaz; eta allegatzean
plazara, belaunikatzen dira Ama Euskararen aurrean,
eta kantatzen dizkiyote bi bertso oiek:*

Euskal semeak:

Ai gure Ama gozo-gozoa!
Ustez zaitugu goiendu,
elkartasunak Beotibarren
guziro digu lagundu;
gure Tolosak onra aundiya
betiko irabazi du,
zer eta nola egin bear dan
premiyak erakusten du.

Jaungoikuari eskerrak eta
orobat gure Amari,
omenaturik Beotibartik
geradelako etorri;
Ama Euskara, esan eiguzu
kontentu zeran gaur guri,
ama-semeak asarre gabe
bizitu gaitezen ongi.(7)

Amak:

Nere besoak zabaldu eta
belaun gorriyen gañean,
o Jaun aundiya, jartzen naitzazu
negarrez... pozez... aurrean.
Seme nereak garaitu dute
Beotibar-zelaiean
etsai-talde bat izugarriya,
naiz etorri indarrean.

O mendi berde biribiltxuak!
O asnas osasunduna!
Nork beinbat, zeñek, nola neurritu
zure atsegintasuna?
O Euskal-Erri zoragarriya!
O zure edertasuna!
O zure zelai meder pollitak!(8)
O zure alaitasuna!

Semeak:

Ze paketsuba zeran pakean,
gudan berriz ze gogorra!
Etsaiari zuk sartu izandu
diyozu beti bildurra.

Zure arbolan ez du ebaki
arrotzak iñoiz egurra,
beti egiya maitatu dezu
gorrotatubaz gezurra.

Amak:

Umilla zera fedearentzat,
lanean zerade latza,
supitarekiñ egiten dezu
itsasoetan arrantza.
Alferkeriyan bizitutzea
zuretzat izan da lotsa,
onoreari begira dago
beti zerorren biyotza.

Gazte jendea gazte bezela,
guraso zarrak guraso,
bakoitzak bere lan-modubari
oi diyo emen eraso.
Izerdi askoz bedeinkatutzen
dezu lurra, naiz nekoso,
berak saritzat ematen dizu
zenbait atsegiñ ta gozo.

Zure izena Euriopan ta
orobat leku guziyan
arkitutzen da, baita arkiko,
guziyen gaindik gloriyan;
garbirik eta zintzoro gorde
dezubelako erriyan,
miragarriztat gertatzen zera
agertzen zeran tokiyan.

Semeak:

Non da ikusten gure jazkerak
daraman garbitasuna?
Non da arkitzen gure etzantzak
daukaten gozotasuna?
Non da topatzen gure dantza ta
jolasen edertasuna?
Non da billatzen justiziyentzat
degun begiratasuna?

Amak:

Aberatsakiñ umildadea,
berebat abadeari,
ez diyozu zuk eskurik eman
beñere esku beltzari,
gaitzik opatu gabe bizitzen
zeradelako iñori;
berarengatik katez lotuba
etzera iñoiz agiri.

Txakurtxo baten etxendiakiñ
oiera zerade joaten,
lapur-bildurrik gabetanikan
lotan zu zera egoten;
gabaz negarrik ez dakizu zuk
auzokoeri ematen,
baizikan bear diradenean
lagun diyezu egiten.

Ate ondoko pobre gaxoa
egiyaz kupitzen zaitzu,
al dezazuken modubarekiñ
gogoz laguntzen diyozu;

illdakoaren oroitza berriz
luzaro gordetzen dezu,
bizitza ona, eriyotz ona,
berdiñ daramakizkizu.

Oitueretan ez dezulako
beste iñoren antzikan,
zure semeak ez dute egiñ
ilkintza, lapurretikan.
Bizitu zera lege gogorren
bearrik gabetanikan,
Euskal-Erriya, egon zindezke
onra oietzaz pozikan.

Lau buru-gatik munduko jaunak
zinduben ala umildu,
euskaragatik godoen mende
ez ziñaden zu egondu;
fedeagatik Pelayori zuk
zeniyon ala lagundu,
fuegoengatik kondaira dana
zenduben lorez apaindu.

Semeak:

Zenbat umanta dituzun eman
kontatu eziñ gintzake,
ez degulako jakinduririk
gaiak nai duan ainbeste;
naiz legorrera, naiz itsasora
begira jarri gindezke,
eta «gu gera goien-goienak!»
kantatu bear genduke.

Amak:

Mundu onetan zerurik bada,
Euskal-erriya, zu zera,
Euskal-erriya, arren ez joan
besteren griñik artzera.
Zure fedea ondo piztubaz
maitatu zazu euskara,
saia zaitea lege santubak
betiko segurutzera.

Negargarrizko egun oietan
zer zagu, baña, gertatzen?
Asko ikusi degularikan
gera nolabait itxutzen;
erbestekoen itz puztubakiñ
dira batzubek txoratzen,
euskal onrarik goien-goienak
asi zaizkigu aztutzen.

Semeak:

Esan oi dute birunka beti
ibiltzen dala munduba,
jira oiekiñ noski nastu nai
digu etsaiak buruba.
Or entzuten da turmoi lodi bat
atzerriyetan sortuba,
orixe dabil ondatu naiaz
euskalen erri santuba.

Amak:

Jakizazute kalte aundiyak
nondikan datozkitzuten:
euskal semeak ibiltzetikan
auzo-legeen ondoren.

Ez dakizute gure etxean
kondairak zer garbi dauden?
Lotsa gutxiyaz esan gentzake
zer-nolakoak geraden.

Ez aztu iñoiz nolatan ill nai
dizuten Ama Euskara,
ez aztu iñoiz nondik datorren
gure legeen galera.
Ikusten zaute nola bota nai
gaituzten oso lurrera...
Ori jakiñik, joango zerate
artzai paltsoen lurrera?

Semeak:

Tximista bati bezela egiñ
bear diyegu *Aitaren*,
ikusitzean *berdintzalleak*
lur santu onen barrunen;
otoitz gogotik gero egiñaz
emendikan joan ditezen,
beren mesede gabetanikan
gu ondatu ez gaitezen.

Non dauka iñork eskubiderik
berekiñ gu berdintzeko?
Zeñek lezake agindu iñoiz
gure euskara uzteko?
Nor dira oiek gure oiturak
txarragoaz trukatzeko?
Zeñ ta nor dira gure legeak
gu gabe porrokatzeko?

Ama-semeak gauden bill-billik,
etsaiak beude andikan,
au egiñ arte Euskal-Erriyan
ez dago gauza onikan.
Gure legeak zerutik dira,
bañan aienak nondikan?
Ez datorrela *berritzallerik*
zerura infernutikan.

Amak:

Bai, ume onak, gelditu zagu
bide bat bakar-bakarra,
eta ori da ama-semeak
batean etzan bearra;
len ere ala izan genduben
alde danetan indarra,
eta gaur ere modu ortara
kenduko degu negarra.

Kontentubaz ta pozaz beterik
gaur dago Ama Euskara,
bañan berriro etor litezke
etsaiak gure aurrera;
eta orduban bear dezute
zabaldu nere bandera,
Jaungoikoa ta Fuegoengatik
guziyok illko al gera?

Semeak: Bai, andrea, bai!

Amak:

Ama on batek esandakoak,
arren, iduki gogoan,
osoro oitu bañan lenago
deabrubaren lazoan;

lege arrotzik ez da konbeni
euskaldun erri zintzoan,
baizik nobleak pare gabea
gure bizitza osoan.

*Euskal semeak asitzen dira beren irrintzi alaiak
egiñaz, kantatzen dituztelarik ondorenean bertso bat-
zuek Gernikako arbolaren doñuban.*

BIBA EUSKARA!

Semeak:

Fede egiazko bat
arturikan lagun,
arren, gure Euskara
maitatu dezagun.
Gu bezela besterik
ote dago iñun,
Amari erakusten
bekokiyak illun?(9)

Zenbat eta Euskara
dagon gaxoago,
gure mendi ederrak
daude okerrago;
etsaiaren izketa
degu maiteago,
onrikan aundiyena
sendotzea baño.

Eman dizkigulako
milloi bat atsegiñ,
arren, gure Euskara
dezagun itzegiñ,
Zertako esker gaiztoz
onela utsegiñ?
Amarengatik denok
bear genduke ill.

**«BEOTIBAR'KO JATZARRAREN
OROIPENA»-REN
ARGITARALDIAK**

Bi bider argitaratu zan antzerki au, guk dakigularik beintzat, eta biak Ramos Azkaraté'ren denboran.

Bata, «*Tolosan: Eusebio Lopez-en moldizteguian*», urterik esan gabe, ogei ta lau orri-aldeko liburuxka batean. Luze-zabaleko neurriak ezin esan ditzazkegu, ertzak ebakita dauzkalako. Tolosa'ko Manuel Urreta zanaren eskutik jaso genduan. Au izango da leenengo argitaraldia, bestea bigarrena izanik.

Bestea ere «*Tolosan: Eusebio Lopez-en moldizteguian, 1886*» argitara emana. Bigarrena dala berak esanda dakigu: «*Bigarren aldiz moldizkiratuba*». Ogei ta amabi orri-aldeko liburuxka bat da. Beraren neurriak: 10'50 zm. zabalean eta 15 zm. luzean. Tolosa'ko Antonino Lakuntza zanaren eskutik jaso genduan.

Orrialdetan daukaten aldeak salatzen duanez, bigarrena osoagoa da. Ogei ta lau bertso ditu, leendabiziko argitaraldian falta diranak: «*Nere besoak zabaldu eta*» asten dan bertso ortatik, «*gure bizitza osoan*» bukatzen dan bertso ortaraiño.

Ala ere, leendabiziko argitaraldiak badu bigarrenak falta duan zerbait. Azken kantuan, «*Biba euskara!*» deritzaion eta *Gernikako Arbola*'ren doiñuan kantatu bear dan sail ortan, beste bi bertso auek dakarzki bigarren eta irugarren lekuan:

Utsa au balitzake
izkuntza samiña,
eta nai dutenentzat
ikasi-eziña;
da gizon jakintsuen
Ama atsegiña,
eta Humbolt'ek maite
zuben Erregiña.

Amaika egi eder,
ai, ai, Larramendi,
esan zenekizkiyon
Euskal-Erriyari;
segitu bageniyon
zure dotriñari,
Ama etzan arkiko
dagon bezin eri.

Beste aldaketa batzuek ere badituzte alkarren artean leenengo eta bigarren argitaraldi auek. Bigarren argitaraldian bezelaxe idatzi degu guk, eta leendabizikoan bestela dagoanean, dei bat erantsi degu, aldaketa ori orain esateko.

- (1) au zan antziña Iturriza ta...
- (2) uste dit...
- (3) gure aita da judio Gaon...
- (4) Orra zer dan munduban tranpaz ibiltzea...
- (5) ta Roncesvalles beti negarrez...
- (6) Bi argitaraldietan *Errondal* dago. Baiña *Erroldan* bear duala dudarik ez dago. Bai punturako ere.
- (7) Ama Euskara, egiñ iguzu,
arren, sermoi bat denori,
ondorenean euskara-dantzan
gaitezen pozaz ibilli.
- (8) Bearbada, *eder* bearko luke emen. Baiña *medar* edo fonetismoren batekin *meder* idatzita ere, badu esan-naia. Euskalerra menditsu ontan zelaiak medarrak eta estuak baidira. Orregatik, dagoan bezela uztea obe.
- (9) Bekokiya illun.

IPUIAK

BASERRITAR TXULIADORE BAT

On Migel Unamuno'k(1) baño txuliatutzen obeto zekien baserritar bat, ari omen zan, beñ batean, arbola baten adarrik lodiyena aizkoraz ebakitzen, bera adarraren mutur aldetik jarririk. Dударik ez dagon bezela, guztiz peligro aundiyan; erorita il edo ezurren bat ausitzeko arrisku izugarriyan.

Adarraren erdia moztu zuben denboran, agertu omen zitzaion bere aurrean beste gizon bat asto txiki batekin, errotatik etxera zijuala. Onek, ikusirik arbola gañeko gizonak galdu bear zubela, esan omen ziyon betikan gora:

— Adiskidea, zer ari zera? Ez dezu ikusten adar ta guzi goitikan bea jo bear dezula?

Arbolaren gañeko txuliatzalleak erantzun omen ziyon bereala:

— Arrazoi dezu. Zuk asmatuko zenduke ni noiz ilko naizen ere?

— Bai, gizona. Asmatuko ez dizut bada!

— Esan nazu, bada, gutxi gora-bera noiz ilko naitzen ni.

— Ara, bada: zu ilko zera, asto onek iru kañonazo tiratzen ditunean.

— Zer esaten didazu? Astoa baño astoagoa ez al zera zu?

— Astoa ez, bañan aztiya naiz ni; eta sinistu nai badirazu, niri jarraitu besterik ez dezu.

Gizon txuliatzallea, kolore guziyak mudaturik, jetxi omen zan pagoaren gañetik, eta ala omen diyo:

— Il bear detan ezkerro, aizkora, egurra eta beste gauzak zertarako ditut nik? Goazen erri aldera elkarrekin; etxeraño bizirik iritxiko banintzake, gaitz erdi litzake.

Abiyatu omen ziran irurak oñez eta, ordu laurdeneko bidea igaro zutenerako, astoak bota omen zuan lenengo kañonazua, eta alako tirua noski, nun gizon arpegi tristeak ala omen diyo:

— Oraintxen iltzen asi nauk.

Bai omen zijoazen eta bai omen zijoazen, eta beste ordu erdiko bidea igaro zuten denboran, astoak bota omen zuan bigarren kañonazua, lengua baño aundiyagua, eta gizon umore onekuak ala esan omen ziyon besteari:

— Adiskidea, iya-iya il naiz.

Astoaren jabeak alako far-irudi batekin erantzun ziyon:

— Nik txantxetan esan ta benetan ilko ote zera zu?

— Ilko ez naiz bada? Aíñ seguru bazeuzkatzuke amabi katu belarrietatik zintzilik, sinistuko zenduke.

Jabea eta astoa farrez, eta bestea anima erratubaba baño tristeago balegoke bezela, eman ziyoten ostera bideari.

Amar minutuko bidea pasatu baño lenago, astoak tira omen zuban lengo bi kañonazuak baño larriyagua, eta gure gizon txuliatzalleak ala omen diyo:

— Il nauk osoro!

Eta erori omen zan lurrera.

Aztiya zala esan ziyon lagunak, eroriera alakua ikusirik, astoaren gañean atzekoz aurrera jarririk, eman omen ziyon itzuliari. Bañan eriyozuan zijuala, asto ta guzi jausi omen zan leiza-zulo batera, eta geroztik an omen daude biyak, arrantza gogotik egiten dutela.

Beste maltzurra illaren papera egiñaz zegoan, nun datozkion lau baserritar bere albora, perira zetozenak; eta ikusi zutenean illaren moduban, esan ziyen elkarri:

— Il-oi bat egin dezagun, al degun bezela, eta lenengo errira eramango diagu.

Ala, artu omen zuten laurak aidean, il-oia egin ta ondorean, eta iritxi ziranean bide-gurutze batera, jarri omen ziran dudan, esanaz:

— Ezkerreko edo eskubitako bidetik joango ote gaituk laisterrena?

Ontan, gañean zeramaten azeritzen omen zaie il-oian, eta ala omen diyo:

— Ni bizi nintzanean, ezkerrekotik joaten nintzan; bañan oraiñ ilda natxiagok eta nai dezuten aldetik eramán nazute, oñazerik eman gabe, aldero gutxirekin.

Ainbesteraño ernegatu arazi omen ziyen ateraldi onek, ezikan, arri bat amilka botatzen dan bezela, bota omen zuten mendiyen malkarretik beera; eta, boteka-boteka, bere etxera iritxi omen zan, lau baserritarrak izerditan utzirik.

Bera oraindikan bizi da, berreun urte izanagatik.

R. Azkarate'kuak(2).

(1) Unamuno'k, Bilbo'n, 1900 urteko Abuztuan, itzaldi garratza eta euskaldunentzat samingarria egin zuan, askoren iritzi gure izkuntzaren il-kanpaiak joaz. Ori zala-ta, Ramos Azkarate'k bertsoak jarri zizkion. Ikus: *Auspoa* 7, 79 orrialdean. Eta ipui ontan aitamen au egiten dio.

(2) Ipui au, Tolosa'ko *El Oriá* aldizkarian argitaratu zan, 1902-IX-27'an.

Leenago ere agertu zan, Tolosa'ko *El Cántabro* aldizkarian, 1895-I-13'an. Batetik bestera aldaketa asko daude. Baiña Ramos Azkarate, dakigunez, 1904 urtean il baitzan, berak sartuak izango dira *El Oriá*'ko aldaketa oiek, ipuiari azken moldaera emanaz. Orregatik, beroni kopiatu diogu.

Azkue'k ere badakar ipui au, zenbait aldaketarekin, bere *Euskalerraren Yakintza*'n (Espasa-Calpe, Madrid, 1942), bigarren tomoan, 112 orrialdean, *Bizirik zerraldoan* izenburuarekin, Naparroa'ko Larraun'en jasoa.

KANPION'EN ANTZIKAN ETZUTEN SENAR-EMAZTE NAPARRAK

Munduban asko bezela, senar-emazte batzubek bizitutzen omen ziran Naparruan guztiz beartsu edo pobre, bañan txit pozaz eta atsegiñez, aberastutzeko batere antsirik gabe, zoririk onenian, osoro konforme beren suertiarekin.

Gizonak omen zuben atorra bat bakarra, —guk alkandora esaten diyoguna—. Alaz guztiaz ere, igandeetan eta beste jai-egunetan meza nagusira joan gabe ez omen zan gelditutzen; ortarako, gizon au egoten omen zan oyian, aita Adan'en jantziyan, igande eta jai-goiz guztiyetan, bederatzi ta erdiyak arte, da esatia, emazteak atorra garbitu eta legortu bitarteko denboran.

Ala, neguko jai-goiz batian, beti bezela, emazte txukunak atorra garbitu ta legortzen jarri omen zuben sasitxo baten gañian, eta... zer egin ziyoten erri-

ko jauntxuak? Mutil koskor baten bidez ebatsi edo lapurtu ziyoten, bañan ez gaitz egiteko ustian, ez bada gero far piskatxo bat egiteagatik.

Meza nagusiko lenengo kanpanak edo ezkillak jotzen abiyatu ziradenian, andre gaxua zintzoro asko bai omen dijua atorraren billa, eta utzi zuben tokiyan arkitu etzubenian, begiyak malkoz bustirik joan omen zan senarrarengana esanaz:

— Jesus!! Jesus milla bider!! Auxen da lana! Zer egin bear det nik oraiñ? Iya amarrak laurdena gutxiyago dirade eta... Ai, Manuel Mari neria!

— Zer dun, Apolinaria? Zer dun? Edo zeñi negar egiten diyon?

— Zeñi negar egiten diyotan? Zure atorra ebatsi digu norbaitek, legortutzen neukan lekutikan.

— Ez daukan zeñi negar egiñ aundirik! Orrengatik negar egiten dun? Orrengatik? Neri bañan falta geiago egiten baiziyon nere atorra ebatsi dubenari.

— Bai, Manuel Mari. Ori ala da, baño... meza nagusira joan gabe ezin geldituko zera beñepeñ. Nola edo ala zerbaitekin moldatu bearko dizut atorra edo... atorraren antzekua, amarrak bitartean.

— Nai denana egin zan.

— Nai dedana? Al dedana ere ez da gutxi.

Ontan, Apolinariak bere kutxatik etera omen zituban lau aur-zapi, eta lau puntaran elkarri lotuta, txirbill-suban bero-bero jarririk senarrari oiera eraman omen ziyon, esanaz:

— Tira: au jantzi eta oietik jetxi zaitez agudo. Galtzak sartutzen dituzuben denboran deitu nazu.

Lau minutu bañan lenago gizonak deitu omen ziyon onela:

— Apolinaria, ator azkar. Au ez dun atorra, baikan irakiten dagoan kapusaia.

— Manuel Mari, zaude ixillik Jaungoikoagatik, beeko bizitzakuak aditu gabe.

Jantzi-azi omen ziyon txalekua, eta eskumuturretan jarri omen ziyozkan bi aur-txapel alako moduban noski... Biyak elkarri begira farrez itotzeko zoriyan zeudela, esan omen ziyon gizonak:

— Zer jarri bear diran lepoan?

— Sangri-zapi bat txit txukunkiro.

Esan bezela moldatu zubenian mezetara joateko moduban, gizonak esan omen diyo ostera andreari:

— Galtzak atzian zulua duten ezker... bakallua agiriyan eraman bear diñat, atorra bat bakarra nubela esan ez dezaten. Agur, Apolinaria!

— Agur, Manuel Mari. Ernai-ernai jua.

Txoteko urria baño dotoreago bai omen dijua eleizara, eta elizpian an omen zeuden jauntxo guziyak algaraz, gizon onen etorrerari begira; parera iritxi zanian, aietako batek esan omen ziyon:

— Manuel, atorraren muturra darizu galtzan zultotikan.

Batere kolorerik mudatu gabe, erantzun omen ziyon:

— Daukanari agertzen zaiok.

Ainbesteraño grazitan erori zitzaien noski eteral-diya au, bizitu ziran artian ez omen zitzaien ezer pal-tatu senar-emazteai mundu au ondo igarotzeko.

Alako atorrakin
konforme diranak,
ez dituzte egingo
Kanpion'en lanak;
bat eziñ izan eta...
bi nai dituztenak,...
dirade, bai, Fueruen
etsai aundiyenak.(1)

R.

(1) Kanpion dan bezela. (Egillearen oarra).

Ipui au *El Cántabro* aldizkarian argitaratu zan, bere 155 zenbakian, 1895 urteko Ilbeltzaren 20'an.

IPUI EDO FABULA BAT

Itsas-adarretan, ibai zabaletan, erreka txistor eta aundi xamarretan ere, jendeak uraren alde batetikan bestera igarotzeko zubirik ezagututzen etzuten denbora aietan, —nolako gaitzak alako erremedyuak izan oi diran bezela—, izandu omen zan gizon bat ikaragarrizko aundiya, guzizko indartsuba, bulardetsu izugarriya, uralderik aundiyenari ere berak nai zubenian errepresa egiten ziyona; itsasorik zabalengan sartubagatik gerriraño bustitzen etzana.

Omen zan leial paregabekua, biyotz guztiz biguñekua, millaka jente batere irabazirik gabe ibaian alde batetikan bestera pasatutzen ibiltzen zana, bere bizkar zabalaren gañean artuta.

Gizon gizondiyaren adiskide oni deitutzen omen zioten Kristobal Ongillea, bere obra onakin santuba izateraño allegatu edo iritxi izandu zana, neri konstatu diratenez.

Egun batean gertatu omen zitzaion gizon zorioneko oni, gaur Billabona dagon lekutik Alegrira birtartean milla eta bosteun famili Oriyako ibaian alderdi batetik bestera pasatu bearra; eta beti bezela bere lanak ondo egiñ zitubenerako, etorri omen zitzaizkan beste eun sastre, beren goraize, *plantxaola*, *orraztoki*, titare eta... beren parrokianoai artu edo... ebatsi ziozkaten oial-puskak beren zakuetan zituztela, esanaz:

— Kristobal, eun sastre bakarrik gera; eta Jaungoikoagatik, al diguzu egingo mesede, eguzkiyaren eran bizi-modurik ez daukagu ta, ospeleraño pasatutzea denok batean ibai zabal onetan, gure dendak eta guzi?

— Bai, sastre jaunak, bai. Igo zaitezte amarnaka nere gañera, eta denbora gutxi barru zerate beste aldean.

Eun sastreak exeri ziradenian Kristobal'en bizkarren gañean, «bat, bi, iru, lau!» esan ta abiyatu omen zan gizon doatsu au ibai zabala pasatzen, eta batere desgrazi gabe igaro zitubenian eta legorrian sastreak arkitu ziradenean, itzezin omen zuben aietako batek modu onetan:

— Jaunak, nai al dezute aditu nere pensamentu bat, Kristobal'i grazi aundi bat egiteko nolakoa dan?

— Bai, anai maitea, bai. Nai degu entzun.

— Orra bada: pentsatu det nik, zakuetan dauzkagun kolore guzietako oial-puska oiekin, soiñ eder bat moldatzea Kristobal'entzako, gure oroipen bat izan dezan bere denbora guzian. Konforme al zerate?

— Bai, bai —guztiyak erantzun zuten.

Bakoitzak bere puskek ateratuaz, Kristobal bera begira zegoela, ordu laurden bat bañon lenago mol-datu eta jantzi omen zioten bi milla kolore zituben soiña.

Zoratu omen zitzaion gure Kristobal'i, bere bu-ruba añ apaiñ ikustearekin; eta sastre jende arekin obeto gelditzeagatik, esan omen ziyen zerura eman-go zitubela, baldin etorri nai bazuten.

Sastreak konforme gelditu omen ziran; eta ala, lotu omen zituben soka aundi batekin eun sastreak, eta sorta egur bat bezela eraman omen zituben ze-ruko ateraño, eta bizkarretikan jetxi eta eskutikan zintzilika zeuzkala, jo omen zuban atea: *dan!... dan!...*

Pedrok barrendikan:

— Nor da or?

Erantzun zuen:

— Kristobal eun sastrekin.

Jaungoikoak esan omen ziyon:

— *Sursum corda.*

Baña Kristobal'ek aditu omen ziyon:

— *Suelta la cuerda.*

Askatzen omen du soka eta eun sastreak an omen datoz tximista baño azkarrago zerutikan lurrera, eun patata eroriko balira bezela; eta bat aiñ justu erori omen zan Urkiola'ko ardo-tratalari eta Urre-si-no'n gañera, bere eskuban bandera zubela, eta esan omen ziyen:

— Biba ni!

Beste larogei ta emeretzititik, bat bakarrik ill etzalarikan, gelditu omen ziran txit errukarriyak: batzuek txalkortuta, besteak betiko errenduta, ipurdiyak okertuta, da esatea, Jaungoikoak dakiyen moduan.

Gerozko gizaldietan izan omen dira sastreak izandu diran bezelakuak, oraingo egunak artian.

(Desgraziya au gertatu omen zan Maiatz-illaren bederatzian, ez dakigu zein urtetan.)

Bañan gaur badira sastreak gizon osoak, gizon eder zuri-gorriyak, gizon liberal-katolikuak, bizartsu errespetokuak, izaten diranak gobernadore, alkate eta oraindik, denbora asko baño len, ikusiko ditugu izaten errejidore.

Eta zergatik ez, ortarako badira liberalkeriyen legiak?

Nola aditu ala kontatzen det(1).

(1) Ipui au *El Cántabro* aldizkarian argitaratu zan, bere 377 zenbakian, 1897 urteko Maiatzaren 26'an. Ez du inork izenpetzen, baiña egillea Ramos Azkarate dala dudarik ez dago, gure iritzirako beintzat.

**POLITIKARI BURUZKO
PROSA-LANAK**

ANARKIKERIYA

Badira egun batzuben esaten genduela: ez poliziyak, ez txandarmiak eta ez tribunalak azpiratuko dutela *anarkikeriya*; eta gaur gañera esaten degu: oker aundi orren erremedyua dagoala bakarrik apaiz, fraile eta monjan eskubetan; eta zenbat eta geiago pentsatzen degun gai onetan, orduban eta geiago sendotutzen gera esan degun iritzi orretan.

Gauza klarua da liberal beltzai zutituko dizkate-la illiak gure *irudide gogor onek*, eta esango dutela: «Nola gu joan entregatzera *illunpearen (oscurantismo)* egille oietara?» Bañan ez dago beste erremedio-rik: edo jiratu kristauen dotriña gogoz maitatzen zan denbora eder aietara edo bestela galdua da elkarte guztia. Eta ez dago esandako orretan batere geiegi-rik. Tribunalak ipiñiko dizkate kastigu, biar bada gogorra, arauzte burukidatuari (*delitos consumados*); baña tribunal oiek ez dezakete ezer egiñ barrengo iritzi ixillen kontra. Gai onetan bear da *beste gauza bat*; ez dira asko ez gillotina eta ez urkamendiya bera ere.

Ikusirik naziyuak anarkikeriya ari dala zabaltzen mundu guztiyan, eta beraren egilleak egiten dituzten lan izugarriyak elkartearen kontra, izutu dira eta asi dira gobernubak artzen neurri gogorrak kastigatzeko lan oriyek; bañan kastigu oek ipiñiyagatik bakar batzuberi eta illagatik ere egille batzubek, geditzen dira bizirik ta beren oñian, esan oi dan bezela, zabaldutako dotriña gaizto eta irudideak.

Eta esaten dute anarkistak: «Nekatuko dira; izango dira gure artean jauskafi (*víctimas*) batzubek, bañan oien odolak serbituko du irazekitzeko geiago gure indarra, eta gure bengantza izango da izugarriya». Ez dira egun asko oraindik, gaur Españiyan dagon gobernubaren aldeko gizon batek, jakin zubenian Barzelonako Lizeon gertatu zan ipui-ondoa (*catástrofe*), esan zubela, kontatzen danez: prezisoa dala ipiñitza ditezkean(1) kastigu gogorrenak kulpadun anarkistai, bañan ezin ditekeala zerzenatu irabazkidatuta (*conquistado*) dauden lizenziyak (*libertades*). Esango balitz bezela: Pallás edo Vaillant bat izango da lepo-moztua (*decapitado*), bañan oien lagunak segitu dezaketela(2) egiñaz libertade osoarekin beren batzarreak, zabaldubaz periodiko eta liburuetan beren irudide galgarriak, eta jolas geisariakin (*discursos violentos*) prestatu dezakiela gazteriyaren indarra legautsi berriyetaryako (*nuevos crímenes*). Eta eskoletan eta beste orrelako lekubetan esango zaio gazteri orri: ez dala Jaungoikorik; ez dala beste mundurik; ill ezkeru akabatu dala dena eta egin bear dana dala mundu onetan bizitzia kunplitubaz gusto-jenero guztiyak, zergatik ez dan kontu eman bearrik iñori bere egiñanik.

Eta ez pentsatu au esaten degula guk. Ez da denbora asko diputadu sozialista Frantzia'ko batek, ikus-tean anarkiyaren kontra bertako gobernubak jarri nai zitubena lege edo ordena gogorrak, esan zubela Kor-teetako salan: «Gu ez gera zuen diszipulu edo ikasle batzubek baizik. Des-erritu dezute eskoletatik Jaungoikua. Erakutsi diguzute ez dala Jaungoikorik. Ari zerate edukatzen emartza bat Jainko bagea (*una generación atea*). Esan diguzute beste munduko kontu oiek dirala sortubak apaizak. Eta oraiñ, asi zerate-lako biltzen zerok ereiñdako aziyaren prutuba, ika-ratzen zerate eta nai zenduteke eukidatu (*reprimir*) indarrarekin zerok erakutsi dizkigutzuten irudideak (*ideas*). Au ezin diteke. Berandutxo da eta ez dezute iritxiko indarrarekin nai dezutena». Arrazoi sobra-tuba zuben Frantzia'ko diputadu sozialistak.

Desengañatu bitez liberal-klase guztiyak. Aski-ya egiten dubenak ez da posible biltzia gariya. Esan diyozute erriyai librea eta sobera-aundikoa dala; ez dezala izan txandarme eta ekadoiaren beste bildurrik, eta apaizak esaten dituzten gauzak beste munduko ta Jaungoikuaren justiziyaren gañean dirala danak gezurrak. Bada sufri ezazute oraiñ dotriña txar oiekin erakarri dezuten ondorena.

Gai onetan liberal guztiyak dute ikuskizuna, nola nabarrak ala gorriyak eta baita ere urdiñak.

Da bada prezisoa, biraumenatzeko (*conjurar*) gaitz ikaragarri au, aukeratzia (*crear*) elkarte berri bat.

Ez dago dudarik eunkida batian erriyai erakutsi zaizkaten irudide mezgutxigarriak (*disolventes*), utzi-yaz lizenzi osoarekin gaitzerako jeniyuak, ezin erre-mediatu ditezkeala momentu batian; bañan prezisoa

da astia bertatik formatzen emartza berri bat (*nueva generación*) erlejiyo santuko irudietan. Konbeni da eskoletan, ospitaleetan, errukitsuen etxe santuetan eta, itz batean, leku danetan erakustia egiya, eta alimentatzia erriyaren espirituba kristabaren doktrinako kartillaren ojakin.

Erremedyua da geldia (*lento*), baña da eragillea eta bakarra. Obra aundi onetan estreñeko lekubak bear dituzte okupatu apaizak beren parroketako egintzan, frailiak beren erakusteko lekuetan eta monjak eskoletan, ospitaleetan eta beartsubaren etxe santubetan; eta kunplitzeko ekintza gloriazgo onekin, prezisua da apaizak, fraileak eta monjak idukitzea ontarako bear dan libertade guztia, eta lagundu oieri ontasun-klase guztiakin, nola gobernuko agintariyak ala gañerako gizon prestu eta biyotz oneko guztiyak.

Ez dezatela pensatu liberalak goza-emagarri (*anodinos*) ez izatea, ez arraia eta ez aragiya, basta dala libratzeko erantzugarri onetatik (*responsabilidad*). Ez, ez da asko mezetara joan ta errosariyua errezatzia. Egin bear da zerbait geiago ere, bada esaten du esanki batek: «Jaungoikuari erregutzen eta mazuarekin jotzen»; bada ez dezatela dudarik iduki, eskatuko diyela Jaungoikuak egunen batian kontu estuba, ez bakarrik egin duben gaitzarena, baita ere egin dezakeela egin gabe utzi duben onarena ere.

Gaur gaude judiyuen eta masoien mendian. Iri-txiko zaiote oieri ere beren eguna. Judiyuak dira gaur iya Euriopa guztiko dirubaren jabe, eta nola anarkistak bear baiduten diruba, joango dira billa nora? Dagon lekura, eta artuko dute, eskatu gabe lizenzi-

ya jabeari. Frak eta gorbeta txuri dun masoi, ministeriyuak, enbajada, republiketako buruzari eta beste orrelako leku altubetan okupatzen dituzten oiei, anarkistak diye guri bañan gorroto aundiyagua. Zergatik? Zergatik guk esaten degu klaro eta garbi zer nai degun, bañan masoien artian dago asko hipokrita eta askok esaten dute dirala ala, ondo berak bizitzeagatik mundu onetan.

Bañan guztiyen gañian erantzun biar izugarria izango dute egunen batian, arako arturik beren burubarentzat fededunen edo katolikuen izen polita, nekaten diranak okasiyo guztietan kentzia indarra egiazko fededun edo katolikuai, engañatubaz beren itz apañakin jende on asko, irudide beñere egiaz izatea iritxiko ez diranakin.

Akabatzeke: nola fededun «Jesukristoren Eleiaz kanpora ez dagoala salbaziorik», ala karlistak esan dezaguke «guk defenditzen degun banderaz kanpora ez dagoala salbaziorik elkaratearentzat».

R. A.(3)

NOTA.— Dago artuba eskritu au Nafarruako *Leialtadea* izendatzen dan periodikotik, Illbeltzaren bederatzian argiratutako erderazko artikulu batetik. (*El Cántabro*'ren oarra)

(1) *El Cántabro*'n: ditekean.

(2) *El Cántabro*'n: dezakela.

(3) Idazlan au *El Cántabro*'ren 55 zenbakian agertu zan, 1894'ko Otsaillaren 4'ean.

AITA ZIRILO

(Erderatik euskerara biurtuba, eta dago artuba egunaria edo kalendariyo batetik.)

Jaio zan gizon aundi au Torrejón'en guraso nekazariyengandik. Egin zan Aita San Franziskoren erlijioko seme Madrill'en, amabost urte zitubenian; eta irabazirik sermoigille guzizkoen fama, joan zan misionero 1808'garren urtian Montevideo'ra, eta an izandu zan español on bat eta gañ-gañeko erlijiosua.

Gero pasa zan Brasil'era, nun izandu zan errezi-bituba grazi aundiyan Braganza'ko Prinzipeakgandik; izandu zan enkargatuba moldatzeko Don Fernando zazpigarrenan eta Don Karlos'en ezkontzak, gero biyen emazte izandu ziran bi Prinzesakin.

Zazpigarren Pio'k lonbratu zuben franziskanuen Ordenako Buruzari edo Jeneral; kargu onetan erakutsi zuben zenbaterañoiko langillia zan, zelebratubaz batzarre bat Alcalá'n.

Gero izandu zan lonbratuba Kuba'ko Santiago'ko Artzobispo, bañan itzuli egin bear izandu zuben ar-dikan 1837'garren urtian, orduko naraspilla edo ger-raren bitartez.

Etorri zan Don Karlos bostgarrenaren kortera; eta emen, izanik Jaun onen aita-jaun, portatu zan Ma-roto zana bezela.

Bergara'kuak baliyo izan zion Toledo'ko silla aundiya, eta emen izan zan edo egin zan karlisten etsai ainbesterañokua... Bada San Karlos Rapita'ko denboran izandu zuben ausardiya *basatiyak*(1) edo salbajiak deitzeko, soñu aundiko irakasde(2) batian.

Aita Zirilo ill zan, Agorreko naraspilla-zaliak egindako neurkida edo konstituziyua España'ko obispo jaun guztietan berak bakarrik juramentatuta.

Onek, bai, onek bururatzen dit
oraiñ Le...*ttar...ttar...* Mendia,
ez dalarikan Zirilo'n gisan
kargu aundiyaen jabia,
zerbaitengatik salduko zuben
lengo Errege beria,
txit egiazko katoliko ta
guzizko Fuero-zalia,
liberal denak gorrotatutzen
duten Prinzipe noblia,
salbaziyoko bandera daukan
zaldun txit paregabia,
deserrituta arkitutzen dan
egiyan adiskidia,
lur azpiratu bear dubena
erdaldun beltzen legia,

eun errege bidezko aien
illoba maitagarria;
ez balitzake *intrigo* denak
bañan askozaz obia,
ez baldin balu defenditu nai
guraso zarren fedia,
jan besterikan ez leukake gaur
zuen moduban *urria*.
Ikusirikan iya illian(3)
Españi negargarria,
iya galduban ikusirikan
Aitor'en Euskal-erria...
Zer da bañan, zer, Doña Le...*tar...tar*,
zuk nai dezuben bidia?
«Utzi Don Karlos —oju eginta—
sendotu *Etxeko-andria*»,
zuk tratatzeko —«ojalateros»—
Karlos ta bere taldia,
leku artatik bai al zenuben
alako eskubidia?
Zu aberatsa bazera diruz
buruz zerade pobria,
obetoago esango dizut
«Voltaire» miserabilia,
Ramon Nozedal eta Romea'n
anai pensakallaria.(4)

J. A. Goiko-etxeak.(5)

- (1) *Hordas*. (Egillearen oarra.)
- (2) *Documento*. (Id.)
- (3) *El Cántabro*'k: ikusiriyak illian. Guk erantsia da *iya* ori, ala bear dualakoan.
- (4) *Calumniador*. (Egillearen oarra.)
- (5) Idazlan au *El Cántabro* aldizkarian agertu zan, beraren 207 zenbakian, 1895 urteko Uztaillaren 21'ean.

NOCEDAL ETA PROBIDENTZIYA EDO LETARTA

(Erderatik euskerara biurtuba, eta dago artuba egunaria edo kalendario batetik.)

1888'garren urtean —bada ezpada ere San Ignazio egunian— agertu zan ezkerro Burgos'ko agiria edo manifiesto *fama aundiko...* ura, kontatuko degu Erramuntxorekin gertatu zana, bere Ama Romea'k argitara eman zubenian.

Jaio zan urtearen aitzenian, da esatia, San Silbestre egunian, alako denboretan, ezikan onen aita D. Kandidok, Gonzalez Bravo eta Zarate'ko Gil'ekin pasiatutzen zuben egunetan.

Negubaren biyotza zalarikan, guzizko egoraldi ederra egin zuben, eta orregatik balkoiak eta leiuak zeuden zabal-zabalik.

Bi jesuitak jarri zutenian aur au seaskan,... gertatu zan bada sartutzia balkoi batetik egazti txiki bat

—izan bear zuben torre-txoriya edo xagu xarra, zergatikan illunatarra zan—, eta txori au gelditu eta egon zan aurraren onduan denbora luzian.

Ala bearrak ala gertatu... denborak ikusi zuten gertaera *arrigarritzko* au, zeñengatik geroztik askok dute sinistatutzen —moruen gisan— Nocedal'ek itze-gin eta tratatzen dubela Probidentziyarekin, agertu zitzaiolako torre-txori edo xagu xar baten itxuran. (Oneraño egunariya.)

Zerbaitengatik izendatzen zuten diputadu letartakoa edo Probidentziala oraingo edo betiko intrigo fariseuak!! Bañan... zergatik uste dezu? Zergatikan Duke Mingranan, Konde Guaqui'ren, Narros'ko Marquesan botuak izanagatik... arraspa... ukendu... bizar ebaille eta beste deabrukeriyak eginta ere... ezin kabituko zalako korteetako atean. Eta nola kabituko zan, anak aundiyegiyak bazituben? (Urrengoan kabituko da, Probidentziyak eta karlistak nai badute).

Gaur gizon *sabel zuriya*
eta traidore aundiya
omen da *guztiz argiya*.
Perla oiekin abiyatu zan
emen *Nozedarkeriya*
saldutzen Euskal-Erriya
eta histori garbiya,
munduban arrigarriya.

Gaiñtxurisketak.

(1) Idazlan au *El Cántabro* aldizkarian agertu zan, beraren 212 zenbakian, 1895 urteko Abuztuaren 8'an.

TOLOSA'KO BARRUTIKO KARLISTAI

Nocedal'en *katolikuak* diran bitartez, guregandikan apartatu ziran ezkerero, ari dirade *liberalkeriyari* solu erdiyak ematen, gaur lur azpiyan egon bear zubenari,... Elizaren gauza guziyak janak daukazkin,... Fuero santubak urkatu dizkiguben *borrero*,... jesuitak eta fraileak antziñako denboretan asesinatu dituben,... Españiya guztiya ondatu diguben,... Habana'ko gerraren jarritzalle,... euskaldun galai gazteak kanposantura daramazkiyen —*karlistak bakarrik*—,... bera ondo izan ezkerero, besterengatikan ardurarik ez diyon,... jatea, jatea beste gauzarik gogoratutzen etzaion,... maskara paltsoakin estalitzen dan zomorro gaizto desegoki,... luteranoen erlijiyo traidoria kortean bertan ametitzen duben,... katolikoan batasuna lur azpiratu ziguben,... Luzbeltz'en irudikatzailea dala Elizak esan ziyon eta esaten diyonan alde... ote lezake pausorik eman apaiz jaun batek gauza bea-

rrenetan paltatu gabe, katoliko fuerozale Errege bi-dezkoa maitatzen dakiyenari, prueba garbiyak emanik daukazkin guzizko zaldun On Eusebio Zubizarreta'ren kontra? Aitortzen degu galdera au dala desegokiya, eta gure bururako aundiyegiya dala.

Ez al desegokiya ta... aundiyagua apaiz jaunen zazpi firma ikusitzia Gipuzkoa'ren etsai goienan tartean, Alzola'n lagundutzeko, arreta biziyaekin katoliko karlista bati jipoia eman edo derrotatzeko asmuan? Bai, adiskide maiteak, bai: «*Liberalkeriya pekatuba da*».

Eta ala dala, guk bañon obetoago dakite gure artzaiak. Zeiñ diradela uste dezute zazpi apaiz jaun oiek? D. Patrizio Orkaiztegi'koa, D. Gregorio Retana'koa, D. Antonio Zuelgaray'koa, D. Roman Las-kibar'koa, D. Martin Aranzabe'koa, D. Martin Ezeizabarrena'koa eta D. Hilario Oskoz'koa.

Ez diyotegu ezer kendutzen apaizak bezela, geradelako beren bildotxak; bañan politikako gauze-tan ezin giñezke egon ixillikan iñolako moduz, zergatikan eman duten pausua dan itxusiya buruetan koroia dutenentzako, alderdi denetara begiratuta.

Pauso itxusiya eman ez bazuten, jarraituko ziyoten beste apaiz integro guziyak, eta beste gizon erlijioso, fede onakin oiekin oraiñ artean ibilli diradenak.

Ez al dira bada *liberalak*... Alzola'ren *anima* eta biyotzak, Alzola'ren ezurrak eta mamiyak, Alzola'ren larru-azala, Alzola'ren illeak eta bizarrak? Nork emandako titulua du On Paulok «jentil gizona»? Ez al zuben garbiro asko esan aitzeneko batzarrean bere botiñetako takoiak ere *liberaletan* lardaskatubak dau-

kazkiyela? Ez al daki, ordea, España guziyak Alzola'ren berri, eta masoi Sagasta'ren partidukua nola izandu dan beti? Zertarako dakar, Zubizarreta'n kontra jokatzeko, estali nai duben maskara? Zer on egin ditu euskaldun errietako fuero-maiteentzat? Baterez. Zer izen merezi dute Alzola'ren alde dijoazen apaiz eta beste firmatzalle guztiyak? *Liberalak*, jakiñaren gañian dijoazelako gure Fueruen kontra, gure istori arrigarriya gorrotatubaz, beartsubak engañatubaz, «*Damu det, Jauna*» saldubaz, Etxeko-andreari lagundubaz, turroi aldera dijoaz.

Orain dute egin guk amaika bider esaten geniyo-tena. Orduba ere bazan, beti maskarekin bizitu bear ez bazuten.

Ia bada, karlistak, goazen Zubizarreta eta Olabarria'n alde geren botuak ematera, Alzola eta Alzola'renak lurran azpiyan sartutzera. Ukatu botuak apaiz eta beste apaizen moduko fede gaiztoko intrigo lertzeko zoriyan botoen billa dabiltzan guziyai. Oraingoan garaitzen baditugu, beti-betiko lurpean sartu eta gure probentzi Egiputzuba gaitz gaiztone-tatik libratzen egin dezaguben egiñala, Tolosa'ko barrutiya onratu dedin orain artean bezela.

J. Zamalbide-kuak.

(1) Idazlan au *El Cántabro* aldizkarian agertu zan, beraren 283 zenbakian, 1896 urteko Apirillaren 12'an.

Korteetako ordezkari edo diputaduak izendatzeko auteskundeak ziran. Tolosa'ko barrutian, karlistak Eusebio Zubizarreta jauna aukeratu nai zuten; kontrarioak, berriz, Pablo Alzola jauna. Kontrario oiek liberalak eta integristak edo Nocedal-zaleak ziran. Ona zer dion *El Cántabro* dalako orrek egun berean:

«Todos saben lo que en este distrito ocurre, el vergonzoso y nefando pacto de nocedalinos y liberales es bien conocido, y a pesar de haber publicado en el último número parte de la lista de electores de Tolosa, presentada ante la Junta provincial del Censo por los muy liberales señores Lasquibar y Laborde con el objeto de designar interventores para las mesas, lista en que figuran hombres de muy avanzadas ideas con los íntegros más recatados, vamos también hoy a reproducirla, antes de hablar de cierta carta que entre nocedalinos circula y que, no sabemos cómo, ha llegado a nuestras manos.»

Ondoren, ogei ta iru jaunen izen-abizenak dakarzki. Oietan, euskerazko agirian eman dituan apaiz jaun oienak ere bai. Don Patrizio Orkaiztegi ori, Tolosa'ko Santa Mari'ko errektore jauna zan. Gaiñontzekoak, koadjutoreak.

Aitatutako eskutitz ori ere badakar. Onako au:
«Sr. D. Pedro Mayoz.

Tolosa 9 Abril de 1896.

Apreciable amigo: El candidato D. Pedro Alzola de este distrito ha obtenido del Sr. Obispo de Vitoria su beneplácito y aprobación en vista de la profesión que ha hecho de sus principios católicos. Yo mismo he visto con mis propios ojos ese beneplácito del Sr. Obispo.

Suyo affmo. amigo:

Patricio de Orcáiztegui.»

Beeraxeago, berriz, onela dio:

«...les ha extrañado mucho a los liberales bilbainos, que el Sr. Alzola, siendo liberal por los cuatro costados, se presente con carácter de independiente y no haya presentado a todos los vientos el trapo sucio del liberalismo, en frente de la inmaculada bandera de «Jaungoikoa, Fueroak eta Erregea.»

Electores del distrito de Tolosa! Mucho cuidado con los cantos de sirena del nuevo pretendiente. Contestad a sus insultos y mentiras xcomo habéis contestado siempre a las pretensiones del republicano Goitia.

Aita Santubak esana dauka «liberalak deabruban antze-kuak dirade», eta liberalkeriya kondenatuba dago.

Si tan católico se presenta el Sr. Alzola, (por qué no ha hecho las mismas declaraciones de defensa del poder temporal de los Papas, de la unidad católica, etc. etc. que el legítimo representante de ese distrito, Sr. Zuvizarreta?

Pues sencillamente porque los fabricantes que le apoyan no le hubiesen permitido.

Tolosarrak, kontuz ibilli pixti-klasi orrekin!

Bizi bedi Zuvizarreta eta aurrera beti bezela!

Onenbesterekin etzan Ramos Azkarate konforme gelditu. *El Cántabro*'ren zenbaki berean, amaika bertso argitaratu zituan, gai oni berari jarriak, «Al da gertatu Euskal-Erriyan beñere orrelakorik?» izenburuarekin.

Karlistak irabazi zituzten auteskundeak, eta urrengo zenbakietarako izan zuan *El Cántabro* aldizkariak zertaz itzegin...

GIPUZKOA'KO KATOLIKO EGIYAZKOA

Zer negargarriyak diran zortzi urte oietan Gipuzkoa'ko katolikoak darabizkigubena pauso edo ibillera samiñak! Nocedal'en lagundi errukarriya emen sortu zitzaigubelako... eta oietako dozena bati ala konbeni zaiotelako, beren burubak bakarrik ondo iduki ditzaten, gabiltza elkarri bizitzen utzi nai ezikan, gorrotoa besterik erakutsitzen ez degubela, ejenplorik txarrena ematen... Ama Eleiza Santari eta bere buruzariyai ezin kontatu ala oñaze, beste ainbeste nairgabe ematen diozkagubela... Jaungoikoa eta Fuegoen etsaiari atsegin aundiyak emanaz, gaur bururik altxatu eziñik egon bear zutenak —Probentzi ontan beñepeñ— ardi zarren moduban... Nocedal eta bera bezelako batzuben bitartez, aitzeneko igandean ikusi da katolikoan artean barkaziyorik ez duben gerra gaizto bat, zerubak berak negar egiteko añakoa: apaizak apaizen kontra, apaizak Alzola'n alde, apaizak

karlisten kontra arreta izugarriyarekin, al zuten boto guziyak lapurtutzen *liberalari* lagundutzeko... Mani-fiesto edo agiri guzizko katolikoa eman ziguben, On Eusebio Zubizarreta lur azpiratu naiean.

Eskarrik asko Jaungoikoaren Probidentziya edo Letartari! Zumalakarregi aundiyaren Herederua edo primua dan Prinzipe bidezkoaren artaldean dagoan... Gipuzkoa'ko istoriyak eta gure Fuero Santubak erakutsitzen diyen bezela, liberalkeriyaren etsaia izateko prueba aundiyak eta garbiyak kortean eta alde guzietan emanda daukazkin Zaldun argirotar, politikan mantxa bakar bat ez daukanan kontra... ez da arrigarrizko gauza Tolosa'ko barrutiyen apaiz jaunak ibillitza etxerik-etxe beartsubak engañatutzen, Alzola *liberalantzat* boto-lanetan egiñala guztiya egitea?

Lengo egun batean ziyon *Fuerista*'k(1), lendabiziko kristaubak diputadurik gabe bizitutzen zirala. Egiya da. Zertarako dute bada sakrifikatu beren kontzientziya Ramon Nocedal eta Romea desleial, kanonigo Llorente bañan Fueroen etsai aundiyaagua, Azpeiti'tikan diputadu irten dedin, Eleizaren ondasunak defenditzen jaun onen bearrik ez baldin bada? Nork eta zeñek defenditu ditu —karlistak ez bada— Eleiza eta Eleizako artzaiak, nola gerran ala pakean, nola kortean ala moldiztegian, nola izketan ala obretan, inguruetan, kafeetan eta beste leku guztiyetan? Nork ekarri du katolikoan desuniyua gure Probentzi ederrera? Nocedal'ek. Zeiñ da Nocedal? Bere aitaren semea; Euskal-Erriya bidezko jaunikan gabe laja nai dubena; Eleizaren artalde sendogarriyena ill eziñikan alfer-alferrik nekatzen dabillena. Zeñek jarraitutzen diyo Nocedal'i? *Liberalak* dirala esatea lotsatzen di-

radenak; liberalkeriyak leku onetan daukazkin *liberalen* seme... Berak ondo egon ezkerero, besterengatikan ajolarik ez diyenak; sakrifiziyuak izutzen ditubenak; erri txikiyetatik aundiyetara etorri nai lutekeenak... Itz batean esateko, Doña Kristinarekin konforme daudenak.

Ai, apaiz jaunak, apaiz jaunak! Beron errukiya, karlistik ez balitzake! Guk ez diyotegu gorrotorikan apaizak bezela; ez diyotegu esaten karlistak izateko; karlistak dirala *liberalkeriyaren* etsai aundiyenak, beok bezin ondo iñork ez daki. Beragatik, bada, kon sideratu bezate zer negargarriya dan gure deselkar tea; zer negargarriyak diran izan beon ibillerak Alzola'ren alde. Ikusi dute beokin fede onean zeuden askok nola karlistai botuak eman diozkatzen; beste asko nola botatu gabe gelditu diran, liberalkeriy a pekatu dalako; ikusi dute nola alferrik izan diran beon egiñal guziyak; badakite nola gelditu diran bi bide bakarrik: karlistak edo liberalak; badakite guk nola nai dituguben Jaungoikoa, Fueruak, Sorterriya eta Prinzipe katoliko bidezkoa, Billafranka'n eta Gernika'n juramentuta daukazkin... des-errituta arkitzen dan Eleizaren beso eskubiya; familiyarik aundiyenaren Artzai garaitezgarriya.(1)

Gaiñtxurisketak.(2)

(1) Donosti'ko egunkari bat.

(2) *Invencible*. (Egillearen oarra.)

(3) Idazlan au *El Cántabro* aldizkarian agertu zan, beraren 285 zenbakian, 1896 urteko Apirillaren 19'an.

Aurreko idazlanaren bukaeran emandako argibideak, nai koak dira au ere ondo ulertzeko.

**LENGO IGANDIAN ALSASUA'N
IZANDU ZAN REPUBLIKANOEN
BILLERA EDO BATZARRA**

Amabiyak jo ta beriala, sartu zan biltokiyan Sal . . . turrón. . ., nola esan det? Salm meron, republikano napar eta euskaldunak lagun zitubela, mundu guziyan entzuteko añako txaloak jotzen ziozkatela, eta txutikan jarririk esan zuben:

Republikanuak, utzi nazute jarri dezatan Presidente edo Dianagusi On Justo Maria Zabala, republikano gaitzati(1) beneragarriya.

(Pamplona'n edo Iruña'n gobernadore izandu zana republikako denboran).

Zabala jauna, dianagusiyan maitetik, abiyatu zan esaten nola partidu guziyak arkitzen diran argaldubak, berenez iya galdubak, desonratubak, berak egin dituzten palta aundiyengatik. Eta ziyon benturaz joan

leitekiala siglo edo eunki baten erdiya republika bear bezela goiendutzerako España'ya'n; bañan garaiton-
do(2) Kristoren defensoreak izandu zuten moduban, republikanoena izango dala osotoro.

*(Etziagok beaz alde aldean republika federala.
Nun egongo ote gera orduban Zabala eta ni!).*

On Justo gibel zabalakoa,
aitona maitagarriya,
zuk badakizu Kriston etsaia
nola dan masoneriya.
Ez al dakizu Kristona dala
gure Euskaldun Erriya,
Kristoren gisan nola dan beti
beti garaitezgarriya?(3)

Zer aitzen naia(4) zenuben egin
koroia irabazteko,
zure Tolosa'k zure izena
kale bateri jartzeko?
Badezu bada zuk edadea
egiya sinistatzeko
eta gezurra buru belarri
betiko gorrotatzeko.

* * *

Alvarez Garcia'k(5) dauka itza.

Jardun zan, beste gauza batzuben ondoren, esaten beltzen bakarondea(6) dala gaizki dagoan aragi montoi bat, denbora berean gaixo au ari zaiola deitutzen deabrubari, lagun egin dezaion bizitzen, eta deabrubak dirala karlistak. Esan zuben, elkartasu-

na egin ezkerro, irabaziko dirala (*Luzbeltz'en liberta-
de guziyak*); eta aitzetik ziyon karlisten taldea des
egin bear dala.

(Adiskidia, badaukazute aldi bateko lana.)

Amaika gazta ustel
Alvarez García'k
urdalletikan dauzka
beeraño pasiak!
Gaztaren arrak nunbait
zeukazkin gosiak,
ta jaten ziozkaten
berari estiak;
bestela ezin bota
alako pestiak.

* * *

*Jimenez(7) Naparrua'koak,
ez anguanekuak du itza.*

Beste gauza gutxiren tartean itzegin zuan aurre-
koan sentiduban bertan; ziyon bateratu bear dirala
republikano guziyen indarrak, lur azpiratzeko kar-
listak eta (*al dakigu zeñen bakarondea? Jiménez ba-
ñon gogorragorik ez bada, munduba mundu dan arte
lurraren gañean dantzatuko dira karlistak Gernika'ko
Arbolaren doñuban*).

Alvarez ta Jimenez,
Jimenez Alvarez,
bezperatikan asi
zerate negarrez;

Karlos datorrenean
jantzirik koroiez,
gerrarik gabetanik,
gañera legorrez,
etzerate ez, illko(8)
dirudizutenez.

* * *

Vega Iglesia'ren aldiya da oraiñ.

Bizkaia'ko republikanoen izenian esan zubena
zan, gutxi gora bera, karlistak bañon indar aundi-
yagua daukatela, iñork ez daukala gure bildurrik, zer-
gatican illda gauden, eta illdakorik ez dala piztutzen.
Eta aitzenian ziyon Probentzi oietako libertadeak kar-
listak galdu zituztela.

Iglesia Vega ta.
Vega Iglesia,
zera nai eta nai ez
maketo aizia;
gezurra da, bai, zure
indar neurritzia,
ta Fueroen galera(9)
zuk aitaturzia
da Pablo Alzola'ri
gitarra jotzia,
eta Zubizarreta
goi goian jartzia,
eta Toca ta Toca
dantzan jarritzia.

* * *

Jiménez Bilbao'koan izkuntza.

Bilbao'ko federalen izenian, ausardiz itzegin zubenena zan: Monarkiya edo bakarondea dala kartazko gaztelu bat, eta ziyon republikanoen elkartasuna egiten bada, partidubari emango zaiola indar bat, aiziarekin botatzeko añakoa *badakizute zeiñ*; molde zarrikan ez dutela bear *gobernatzeko*, baizikan berriyak. Eta aizkenean ziyon badala orduba ez diskutitzen edo bearletutzen jarduteko; gerrara joan bear dala.

Ez dalako Jimenez
odol otzekua,
bakoitzari berea
ematera nua;
au ez da Donosti'ko
Voz'an modukua,(10)
Erregiñan aldeko
republikanua,
baizikan da gerrero
odol berokua
Antoniyo Okendo
zan bezelakua

* * *

*Ortiz jaunaren aldiya ere
iritxi da noizbait.*

Itzegiñaz guziro txukun ta ederki, diyo ez dubela meriturikan billera onetan partia artutzeko; bere

lagun maite Ezquerdo ezin etorri zitekialako dato-
rrela euskal errietako republikanuak agurtutzero.
Diyo:

Ez det billatutzen agurtutzero beste modurik, txit
antziñako agure beneragarriyan persona laztandutzia
bezelakorik.

*(Txaluak. On Justo Maria Zabala'ngatik esan nai
zuben.)*

Sinisten du ez dagoala beste erremediyorik gerra-
ra(11) joatea baño; arkitutzen dala Patriya agoniyan
eta illko dala. Donkitubaz oroipen bat Ruiz Zorrilla
argirotarra zanari, ziyon elkartu ditezela republika-
no guziyak, indarrez jantzi ditezzen.

Ez bagera elkartutzen diyo, goazen geron etxera
emakumian moduban, negar egitera.

Bukatzen du esanaz ez dala bear bildurtu etsaia-
ren aurrean, republikano bat bizirik arkitzen dan
artean.

Itza andikan eta
jarduna emendik,
berriketakin ez da
egiten gerrarik;
Filipiñetan nola
ez dagon gauz onik,
daukatzuben ezker
odolak suturik,
zuaz Blanco'rengana(12)
ontziyan sarturik,
emen ez dagolako
gaur zuen bildurrik.

Dans(13) jaunak aurkeztatze ditu
Araba'ko republikanuak.

Bere sermoian tratatu zuan ezaguera aundiyarekin Euskal errietako gobernatzeko moduba, egiñik plano bat dakarten republikarentzat. Esan zuben:

Guk erregalatuko diozkagu gure libertadeak edozeñi.

Deitu ziyon *sugarrasta*(14) Karlos'en taldeari, eta diyo bizi dala, Alfonso ekarri zuben(15) gobiernubak laguntzen dielako. (*Txoro buru petrala!*)

Donkitubaz amodiyozko oroipen bat Habana'ra peleatzera dijoan soldadubari, agurtu zituben Salmeron eta Zabala. (*Gañerakuak gelditu ziran bauraurik*).

Zu bai zeradela zu
suge sugarrasta,
San Migelen azpiko
ber beraren kasta!
Bazabiltza zabaltzen
masoien apasta,
galdu nairik egiyan
talde aberatsa;
bañan esango dizut
dala guztiz gaitza,
gezurrakin karlistai
eramaten baza.

* * *

*Oraiñ altxatutzen da Salmeron,
ganbela zale aundiyetakua.*

Sermoian abiyatu zanerako, jendeak jo ziozkaten txaloekin, lau Probentzietako egazti guztiyak kantatzen zuten inguru aietan bi errenkarako bertso au:

Salmeron'ek urtero kobratzen dubenarekin,
naiko jana erosiko giñikek urre aiekin.

Etzuben esan gauza berririk Habana eta Filipiñetako gerrengatik, baizikan karlistai entzundakuak Alaz guziyaz, jo ziozkaten txaloekin, San Gregoriyo'ra joateko moduban utzi zuten, belarri biyak osoro galdurik; bere gorreri eta guzi, esan zuan, aitzen aldean, karlistak kendu zituztela *Laurak Bat*'eko Furuak. Esan zuben, aitzenean, etziotela edo ez diotela naigaberikan emango katolikoai bildur baita, baizik mantenduko dutela oso osorik Elizaren esku-bidea. Agindu ziyen bere adiskideai elkartu eta egin ditezela Patriyaren jabe, beraren ondasunak deituzten diyen moduban. (*Turmoien antzeko txaluak*). Garcia Alvarez'ek irakurririk elkartasunan aldeko artikulo batzuek, bukatu zan garirik ez da lastoa besterik etzuban batzarrea.

Nork esan dizu zuri,
maketo epela,
karlistak Fuero denak
kendu zituztela?
Ez dakizu larogei
urte badirala
Gipuzkoa'ra beltzak
etorri zirala,

ta Deba'n Castaños'ek
ostu zitubela,
eta ordu ezkeroz
jan dizkigutela?

Ez dakizu ordea
erdaldun gaiztuak
ez dituztela maite
euskaldun Fueruak?
Ez dakite oraindik
republikanuak,
Euskal errietako
zuen aldekuak,
Justo Maria eta
gañerantzekuak,
nun dauden gure Fuero
lapurtutakuak?

Ez dago, ez, txit mangi
Salmeron burutik,
badaki nola jaten
duben *ganbelatik*;
gezurak aurretikan,
gezurak atzetik,
gezurak gañetikan,
gezurak azpitik,
gezurak darizkiyo
alde danetatik
Erregiña maitea
indartzeagatik.

Biztanlen Lakuntza'ko batek.(16)

- (1) Eminente. (Egillearen oarra.)
- (2) Triunfo. (Id.)
- (3) Invencible. (Id.)
- (4) Testamento. (Id.)
- (5) Descendiente de Urkizu azpikoa. (Id.)
- (6) Monarquía. (Id.)
- (7) Descendiente de la casa llamada Arritegui, de Gaztelu. (Id.)
- (8) Los perros que ladran mucho (Id.)
- (9) El Cántabro'k: galdera. (Gure oarra.)
- (10) La Voz de Guipúzcoa alegia, Donosti'ko egunkaria. Eztabaida gogorak izaten zituan orrekin *El Cántabro'k*. (Id.)
- (11) *El Cántabro'k*: gerra. (Id.)
- (12) Blanco au, ziur asko, Ramon Blanco Erenas kapitan jenerala izango da. Donostia'n jaio omen zan 1833'urtean, eta Madrid'en il 1906'an. Bere militar eginkizunetan, Balenzia, Barzelona, Kuba, Santo Domingo, Kataluña, Filipinak eta abar korritu zituan leenengo. Urrena, karlisten azken gerratea egin zuan (1872 1876), liberalen aldetik. Ori bukatutakoan, Kuba'ra bialdu zuten. Gero, andik Kataluña'ra. Filipinetako kapitan jenerala izendatu zuten 1893 urtean. Kargu ortan zan 1896'an, angotarrak España'ren aurka altxa ta gerra jo zutenean eta idazlan au idatzi zanean. Kuba'ra bialdu zuten 1898'an, eta berari egokitu zitzaion ugarte ura ipar amerikar gudarozteari entregatu bearra. (Id.)
- (13) Larraitz'ko semea. (Egillearen oarra.)
- (14) Serpiente. (Id.)
- (15) *El Cántabro'k*: zuten. (Gure oarra.)
- (16) Idazlan au *El Cántabro'*ren 333 zenbakian agertu zan, 1896'an.

ARKIBIDEA

Ramos Azkarate Otegi (1847-1904).....	7
IJITOEEN KONTRATUBA ETA EZKONTZA	9
Zenbait argibide.....	11
Elosegi-ko On Jose Jaunari.....	19
Egintzalleak.....	21
Himno edo kant-ona.....	23
Lendabiziko egintza.....	25
Bigarren egintza.....	59
BEOTIBAR'KO JATZARRAREN OROIPE- NA. GAON JUDUBAREN GALERAREKIN	83
Zenbait argibide.....	85
Kaleko birunka.....	95
Lendabiziko egintza: Gaon judubareen galera	99
Bigarren egintza: Ama Euskararen bakartasuna	107
Irugarren egintza: Beotibar.....	111
«Beotibar'ko jatzarraren oroipena»-ren argitaraldiak.....	125

IPUIAK.....	129
Baserritar txuliadore bat.....	131
Kanpion'en antzikan etzuten senar-emazte naparrak.....	135
Ipui edo fabula bat.....	139
POLITIKARI BURUZKO PROSA-LANAK	143
Anarkikeriya.....	145
Aita Zirilo.....	151
Nocedal eta probidentziya edo letarta.....	155
Tolosa'ko barrutiko karlistai.....	157
Gipuzkoa'ko katoliko egiyazkoai.....	163
Lengo igandian Alasua'n izandu zan republi- kanoen billera edo batzarra.....	167



1008219
B0-439

AZKUE BIBLIOTEKA EUSKALZAINDIA BILBO
67629
1990 URR. 5
5008259



AUSPOA
LIBURUTEGIA